

# Hizkera juridiko argiaren bidetik Ulertzeko Eskubidea jomugan



## Gradu Amaierako Lana

Zuzenbideko Gradua

Zuzenbide Fakultatea

UPV/EHU

**Egilea:** Ainhoa Alzuguren Michelena

**Zuzendaria:** Joseba Andoni Ezeiza Ramos

2018/05/17



## **LABURPENA**

Lan honen helburua da aztertzea zein diren Ulertzeko Eskubidearen oinarriak eta garapena nazioartean eta geure ingurune gertuan. Izan ere, herritar orori aitortzen zaie estatuak emandako arauak zein dokumentuak, eta zuzenbideko eta administrazio profesionalen ahozko zein idatzizko komunikazioak bitartekaritzarik gabe ulertzeko eskubidea. Hori horrela, botere publikoek, gizarte-eragileek eta entitate pribatuek ekimen ugari abiatu dituzte eskubide horri nolabaiteko bermea eskaintzearen. Lan honetan, hain zuzen ere, ekimen horien berri emango da eta horien guztien ekarpenak aztertuko dira.

## **RESUMEN**

El objetivo de este trabajo es analizar las bases y el desarrollo del, así denominado, Derecho a Comprender. Precisamente, toda la ciudadanía tiene reconocido el derecho a comprender sin la intervención de mediadores tanto las normas y documentos del estado, así como las comunicaciones escritas y orales de los profesionales de la administración y del derecho. Con la finalidad de garantizar todo ello, poderes públicos, entidades sociales y agentes privados han emprendido múltiples acciones encaminadas a aportar soluciones a los problemas más urgentes. Precisamente, en este trabajo se dará cuenta de un buen número de dichas iniciativas, e igualmente se presentarán algunos de sus resultados más relevantes.

## **ABSTRACT**

The aim of this work is to analyse the grounding bases and the development of the so-called Right to Understand. Precisely, all the citizens have the right to understand on their own both the public regulations and the written and oral communications of the professionals of the law and the administration. For the purpose of making proposals aligned with the objectives of the Right to Understand, public institutions, social agents and particulars have run several initiatives. In this dissertation, we will offer a wide overview of those proposal and, furthermore, we will present the most remarkable results of those initiatives.



# AURKIBIDEA

1.	Sarrera.....	1
1.1	Lanaren motibazioa, planteamendua eta helburua .....	1
1.2	Lana egiteko metodologia.....	2
2	Ulertzeko Eskubidearen bidetik, hizkera juridiko argiaren aldarrikapena .....	4
2.1	Zertan datzan “Ulertzeko Eskubidea”: definizioa eta legezko bermea.....	4
2.1.1	Zer aldarrikatzen du Ulertzeko Eskubideak? .....	4
2.1.2	Zein da Ulertzeko Eskubidearen legezko bermea? .....	5
2.2	Ulertzeko Eskubidearen aldeko ekimenak nazioartean .....	7
2.2.1	Ulertzeko Eskubideari aldeko nazioarteko erakundeak.....	7
2.2.1.1	<i>Plain Language Association International</i> elkarte.....	8
2.2.1.2	<i>Clarity</i> elkarte.....	9
2.2.2	Ulertzeko Eskubidearen aldeko ekimenak Europar Batasunean .....	9
2.2.2.1	Zer egin den Ulertzeko Eskubidearen alde Erresuma Batuan .....	11
2.2.2.2	Zer egin den Ulertzeko Eskubidearen alde Frantzia.....	13
2.2.2.3	Zer egin den Ulertzeko Eskubidearen alde Suedian.....	14
2.2.3	Ulertzeko Eskubidearen aldeko ekimenak Amerikako herrialdeetan?.....	14
2.2.3.1	Zer egin den Ulertzeko Eskubidearen alde Kanadan.....	15
2.2.3.2	Zer egin den Ulertzeko Eskubidearen alde Amerikako Estatu Batuetan.....	16
2.2.3.3	Zer egin den Ulertzeko Eskubidearen alde Kolonbian .....	16
2.2.3.4	Zer egin den Ulertzeko Eskubidearen alde Mexikon .....	17
2.2.3.5	Zer egin den Ulertzeko Eskubidearen alde Argentinan.....	18
2.2.3.6	Zer egin den Ulertzeko Eskubidearen alde Perun .....	19
2.3	Komunikazio Argiaren aldeko mugimenduaren ekarpenak.....	20
2.4	Irakurketa Errazaren aldeko mugimenduaren ekarpenak.....	23
2.4.1	Irakurketa Errazaren kontzeptua .....	23
2.4.2	Irakurketa Erraza Euskal Herrian.....	25
2.5	Hizkera inklusiboaren aldeko mugimendua: proposamenak eta berrikuntzak.....	26
2.6	<i>Lenguaje Ciudadano</i> mugimenduaren ekarpenak.....	27
2.7	<i>Legal Design</i> dizplinarreko ikuspegiaren ekarpenak.....	29
2.8	Gaztelania juridiko-administratiboa eraberritzeko ekimenak Espainian .....	31
2.9	Euskara juridiko-administratiboa eraberritzeko ekimenak .....	44
2.10	Beste ekimen batzuk .....	51
3.	<i>Hizkera Juridiko Argia</i> proiektua: Ulertzeko Eskubideari buruzko informazioa biltzeko eta zabaltzeko webgune irekia.....	52
3.1	<i>Hizkera Juridiko Argia</i> proiektuaren helburua .....	53
3.2	Zenbait aurrekari euskara juridiko-administratiboaren eremuan .....	53
3.3	Webgunea diseinatzeko, antolatze eta elikatze irizpideak .....	55
4.	Konklusio orokorrak .....	59
5.	Erreferentziak .....	63



## **1. Sarrera**

Atal honetan lanaren aurkezpena egingo dut. Hasteko, GAL hau egitea nola erabaki nuen azalduko dut eta zein izan zen nire planteamendua edo hasierako puntua. Ondoren, lanaren helburua zein den adieraziko dut, eta behin hori argi izanda, jarduteko erabili dudana metodologia aipatuko dut. Hau da, pausuz pausu azalduko dut nola izan den GAL honen prozedura, aukeraketa prozesuarekin hasi eta txosten hau egin bitartean.

### **1.1 Lanaren motibazioa, planteamendua eta helburua**

Gradu Amaierako Lana egiteko prozedurari jarraiki, 2017/18 ikasturtearen hasieran gaiaren eta zuzendariaren aukera egiteko unea heldu zen urria aldera. Gaiaren eskaintza zabala ikusita, kosta egin zitzaidan lehen unean erabakia hartzea.

Gradu osoa euskaraz egin dut eta GAL ere euskaraz egin nahi nuen, euskarazko gaiaren artean gustukoeneren zerrenda bat egin nuen. Zerrenda horretako lanaren artean lehena zein jarri erabaki behar nuen, eta horretarako lau urteotan klasean azalera tututako eztabaida eta gai interesgarrienak ekarri nituen gogora.

Lehen kolpean, kezka bat etorri zitzaidan burura, hain zuzen, fakultatera iritsi berritan piztu zitzaidana. Egia esan, ordura arte ez nuen harreman handirik izan eremu juridikoko eragileekin eta ez nuen dokumentazio juridiko askorik izan eskuen artean. Hori horrela, legedia eta baliabide juridikoak aztertzen hasi, eta jabetu nintzen arazoak nituela testuak lehen irakurraldian ulertzeko. Bertan erabilitako hizkera arrotza eta teknikoegia iruditzen zitzaidan eta ikaskide gehienek ere inpresio bera zutela esango nuke.

Hasieran, zailtasun hori neure gabeziaren bati zor zitzaiola pentsatu nuen, alegia, terminologia juridikoa ezagutzen ez nuelako eta dokumentu juridikoak irakurtzeko ohitura ez nuelako kostatzen zitzaidala ulertzea. Baina segidan ohartu nintzen, hori horrela ere, testuak ez zirela guztiz egokiak, testu horiek orotariko herritarrei zuzenduta beharko bailukete, zuzenbidean jakitun izan edo ez.

Horren kontzientzia hartu, eta urtez urte egiaztatu dut testu horietan erabiltzen zen hizkera eta estiloa ez zirela egokiak, eta, era berean, Zuzenbideak eskaintzen dituela aukerak gauza bera modu argiagoan adierazteko kasu gehienetan.

Hori horrela, Gradu Amaierako Lanak egiteko aukerako gaien artean “Lege hizkeraren eta auzitegiko hizkeraren kalitatea” delakoa ikusi nuenean, neure aukeren zerrendaren lehen tokian jarri, eta, aukera onartu zitzaidanez, gai horren inguruan garatu dut azterlana.

Hasieran, itsu-itsuan abiatu nintzen. Egia esan, ezin pentsa nezakeen gai honen inguruan hain kezka handia dagoenik mundu osoan zehar. Baina poza hartu dut egiaztatuta neure senak bide onetik eraman nauela, eta Gradu Amaierako Lanari ezinbestean eman behar nion ahaleginaren sari, ikasbide emankorra eta pizgarria eskaini didalako esperientziak.

## **1.2 Lana egiteko metodologia**

2017/18 ikasturtearen lehen lauhilekoan hizkera juridikoarekin lotutako hautazko irakasgai bat hartu nuen: *Euskararen Arauak eta Erabilerak administrazioan, arlo juridikoan eta kriminologiaren alorrean*. Irakasgai horrek aukera eman zidan hizkera juridikoaren inguruan dauden auziekin lehen harremana izateko.

Ikasgaien hautazko lan bat egiteko aukera izan genuen eta Enara Conde ikaskideak eta biok “Ulertzeko Eskubidea” deituriko lan monografikoa egin genuen 2017ko abenduan (*Zuzenbidea Ikasten* aldizkarian argitaratzeko onartua). Bertan Ulertzeko Eskubidearen nondik norakoak aztertu genituen eta iturri interesgarriak lortu genituen. Lan hori oso erabilgarria izan zait oinarri gisa GAL hau egiteko eta bertan arin eta labur jasotako kontu asko lan honetan garatu eta osatu ditut.

Artikulu hori egiteko bibliografia-zerrenda labur bat erabili genuen ikaskideak eta biok. Horrela, bada, GAL honen lehen zeregina, iturri bibliografikoen zerrenda zabaltzea eta garatzea izan zen. Ikusirik gaiak sarean zuen oihartzuna, erreferentzia gisa liburuak eta aldizkariak ez ezik, interneteko baliabideak ere aukeratu nituen. Era berean, sare sozialetatik eguneratutako datu eta albiste ugari biltzen hasi nintzen eta informazio hori modu eraginkorragoan jasotzeko Twitter kontu bat egitea erabaki nuen 2018ko otsailaren 22an ([@Hizk Juridikoa](#)).

Kontu horretan, ikaskidearekin batera egindako artikuluan eta bibliografian aztertutako aditu eta erakundeen jarraitzaile egin nintzen (40 kontu) eta horrela, eurek partekatutako informazio eta datuak eskuratu ahal izan ditut etenik gabe. Twitter kontuari esker, eguneratutako informazioa lortu dut eta mundu osoan zehar argitaratutako artikulu, eskuliburu, hitzaldi, lan-talde, eta ikastaroei buruzko datuak lortu ditut unean-unean.



Ordura arte ez nuen inoiz Twitter erabili. Alegia, hori izan da neure lehen esperientzia gizarte-sare horretan. Egiaztatu dut, ondo kudeatuz gero, oso informazio-iturri aberatsa eta baliagarria izan daitekeela gaur egun. Hasieran zalantzati banengoen ere, erraza egin zait plataforma erabiltzen ikastea eta egunero eskuratzen nuen informazioa kudeatzea.

Gaiari buruz neure burua gehiago janztearren, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak antolatutako Hizkera Inklusiboa ikastaroan parte hartzea erabaki nuen. Ikastaroa 2018ko otsailaren 22tik martxoaren 23 arte eskaini zen. Ikastaro honetan asko ikasi dut hizkerak inklusibitatean izan dezakeen eraginari buruz eta hagitik baliagarria izan zait hizkera juridikoa inklusiboa izan dadin jarraitu beharreko pausuak zehazteko.

Horrela, bada, Twitter kontua martxan, ikastaroa buruturik eta bestelako bibliografia aztertuta, testua idazten hasi eta etengabe moldatzen eta aberasten joan naiz, informazio berria jaso ahala aurrez idatzitakoa egokitu eta moldatuz.

Lana aurreraturik nuenean ohartu nintzen ez zela erraza hainbeste informazio modu argian komunikatzea. Era berean, egunero-egunero heltzen zen neure eskuetara azterlana osatu eta zabaltzeko egokia zen informazioaren bat. Orduan ohartu nintzen Gradu Amaierako Lanaren txostena berehala geratuko zela labur eta atzundurik. Hori dela eta, txostenaz aparte, webgune bat sortzea erabaki nuen.

Txostena ezin izango da aldatu edo eguneratu, behin lana aurkeztutakoan. Webgunea, berriz, bizirik eta eguneraturik mantentzeko hala nahi den bitartean. Era berean, webgunea oso euskarri baliagarria da unibertsitatearen testuinguruan egindako lan honen emaitzak gizartearekin partekatzeko eta gaiarekin interesa duten beste jurista edo hizkuntzalariei hilabete hauetan bildutako informazioak eta iturriak eskaintzeko.

Webgunearen lehen prototipoa egin nuenean, Joseba Ezeiza Ramos, nire Gradu Amaierako Lanaren zuzendari denak aukera eman zidan berak bigarren lauhilekoan irakasten duen *Komunikazio Euskaraz: Arlo Juridikoan* ikasgaiaren eskola-saio batera joateko 2018ko apirilaren 23an. Saio horretan, Ulertzeko Eskubidearen nondik norakoak azaldu nizkien ikasleei eta nire lan honen azalpen orokor bat eman nien.

Noski, ordurako ez nuen txostena amaitua eta webgunearen lehen prototipoa egin nuen soilik, baina azalpen hori ematea oso baliagarria egin zitzaidan nire lana berrikusteko eta ikasleek nire azalpenak eta idatzitako testua ulertzeko gai ote ziren ikusteko.

Izan ere, nire helburua da lanean ikasitako teoria praktikara eramatea txosten honetan eta horrela, bildutako informazio juridikoa hizkera argian, errazean eta ulergarrian idaztea. Espero dut hein batean behintzat helburu hori lortu izana.

## **2 Ulertzeko Eskubidearen bidetik, hizkera juridiko argiaren aldarrikapena**

Atal honen xedea hauxe da: lanaren oinarriak eta helburua argi uztea. Horretarako gai ugari aztertuko dira bertan. Besteak beste, Ulertzeko Eskubidea zertan den azalduko da, eta eskubide horren inguruan garatutako mugimenduen berri ere emango da. Horren bidez, azterlanaren testuingurua argitu nahi da.

### **2.1 Zertan datzan “Ulertzeko Eskubidea”: definizioa eta legezko bermea**

Puntu honetan Ulertzeko Eskubidea delakoaren jatorria eta asmoa azalduko da. Hauxe izango da, hain zuzen ere, lan honi euskarri ematen dion kontzeptu juridikoa.

#### **2.1.1 Zer aldarrikatzen du Ulertzeko Eskubideak?**

Ulertzeko Eskubidea herritarrei arauak eta zuzenbideko profesionalen ahozko zein idatzizko komunikazioak beren kabuz ulertzeko aitortzen zaien eskubidea da.

Eskubide hori loteslea da estatu zein nazioarteko erakunde guztientzat. Izan ere, estatua eta nazioarteko erakundeak dira arauak xedatzen dituztenak, eta ondorioz, haiei dagokie bermatzea herritarrek erraz eta aparteko trabarik gabe ulertzea.

Era berean, loteslea da, halaber, herri-administrazioarentzat, justizia administrazioa ere barne dela. Eta, ildo beretik, eskubide honen aldarrikapena loteslea da operadore juridiko guztientzat ere, haiek baitira, azken batean, arau-testuetatik abiatuta herritarrentzako dokumentuak eta komunikazioak egiten dituztenak.

Beraz, Ulertzeko Eskubidea betetzen dela esateko, erabaki administratiboek, lege aldekoek, judizialek zein izapidetzakoek herritarrek ulertzeko modukoak izan behar dute. Baita informazio eta zabalkunde material guztiak ere. Bestela esanda, Andaluziako Herri Defentsariak dioen moduan (2017), herritarrek estatuaren dokumentuak Ulertzeko Eskubidea dute eta, instituzioei dagokie era ulergarrian azaltzea dokumentu horiek.

Carretero, C. eta beste aditu talde batek azpimarratzen duten moduan (2017: 6-10), botere publikoa herritarrei zuzentzen zaienean garbi izan behar du nor den mezuaren hartzailea; bestela, nekez beteko du dokumentuak edo komunikazioak (eta, era berean, erakundeak berak) dagokion helburua.

Hizkera konplexuaren edo ulergaitzaren atzean askotan, ardua edo trebezia falta egon liteke. Baina baita mezua iluntzeko asmo ageriko edo ezkutua ere. Alabaina, Jesús Prieto de Pedroren hitzak geure eginez (1996: 18), esan genezake estatua ezin demokratikotzat jo testu argi eta ulergarriak egiten ez baditu. Alegia, benetan baliagarria izango bada, argia, zehatza eta gramatikaren araberkoa behar du hizkera juridikoak.

Alde horretatik, Ulertzeko Eskubideak ez dakartza abantailak soilik ulermen hutsaren aldetik; era berean, bazterkeria sozialaren aurka egiteko bide ere bada. Izan ere, Ulertzeko Eskubideari saihestu egiteak herritarren parte-hartzeko eskubidea mugatzea dakar, eta, besteak beste, defentsa gabezia ere, kasu askotan.

### **2.1.2 Zein da Ulertzeko Eskubidearen legeko bermea?**

Beranduago azalduko dudan moduan, zenbait estatutako oinarritzko legedietan berariaz dago jasota Ulertzeko Eskubidea. Espainiaren kasuan, aldiz, Ulertzeko Eskubidea ez dago oinarritzko legedian integratua. Alegia, ez zaio aipamen zehatzik egiten ez [Espainiako Konstituzioan](#), ezta oinarritzko lege nagusietan ere. Ondorioz, esan genezake Espainian Ulertzeko Eskubidearen bermea ez dela erabatekoa. Hala ere, egiten zaio bide hainbat lege-testu eta dokumentutan.

Alde batetik, Konstituzioko 1.1 artikuluan aldarrikatzen den Zuzenbidezko Estatuaren aipamena ekar daiteke harira. Izan ere, Javier Badíaren arabera (2015), Zuzenbidezko Estatua izate hutsak, berez dakar arau eta ekintza juridikoak ulergarriak izateko eskakizuna. Era berean, kontuan hartzekoa da, halaber, 9, 106 eta 122 artikuluetan aipatzen den “gardentasun judizialaren” aldarrikapena; hain zuzen ere, gardentasun horrek botere publikoei eskatzen dien erantzukizuna galdatzeko, ezinbesteko baita ebazpen judizialen ezagutza ona izatea, eta horretarako funtsezkoa da ebazpenak ongi ulertzea (Carretero, 2010: 5-6).

Bestetik, Espainiako Konstituzioko 24.1 artikuluan aurreikusitako babes judizial eraginkorrari ere egin behar diogu erreferentzia.<sup>1</sup> Artikulu honen arabera, herritar guztiek dute prozesu judizial batera jotzeko eskubidea, eta Auzitegi Konstituzionalaren ustean, prozesu horretan ematen diren ebazpenek nahitaez izan behar dute arrazoituak (Espainiako Konstituzioko 120.3 artikulua jarraiki).

Ebazpena arrazoitua izateko baldintzen artean, hizkera juridiko ulergarria erabiltzea aurreikusten du Hizkera Juridikoaren Modernizaziorako Batzordeak (Fugali, 2015: 173-188). Ondorioz, hizkera judizialaren argitasun eta ulergarritasuna babes judizial eraginkorraren oinarrian egongo litzateke, funtsezko baldintza baita Zuzenbidea bera ulertzeko eta aplikatzeko ere (Montolío, 2012: 25).

Edonola ere, Espainiako legerian 2002ko apirilaren 16ko [Herritarrek Justiziaren aurrean dituzten eskubideen gutunean](#) aipatzen da lehen aldiz “Ulertzeko Eskubidea”.

- Justizia ulergarria
- Herritarrek eskubidea du zuzentzen zaizkion jakinarazpenak, zitazioak, epatzeak eta errekerimenduak hitz xume eta ulergarri idatzita egon daitezela, beharrik gabeko elementu beldurrarazgaririk gabe.
  - Herritarrek eskubidea du zuzenbidean adituak ez diren herritarrek ulertzeko moduko hizkera-beharrezko eskakizun teknikoak eraspetatuz noski erabil daiteke judizio eta agerarietarako.
    - Prozesuko egintzak zuzentzen dituzten epaile eta magistratuak eskubide hau babesteaz arduratuko dira.
  - Herritarrek eskubidea du idatzen diren epai eta gainerako ebazpen judizialak hartzaileek ulertzeko moduan idatziak izateko; horretarako, sinplak eta hizkuntza-egiturak sinplak erabiliz idatzeko dira, zuzenbidearen teknikoan kalterik egin gabe.
    - Eskubide hauek egikartzeko erabatasunak eman behar dira, abokatuak eta prokuradoreak nahitaez esku hartu beharrik ez duten prozeduretan bereziki.
  - Herritarrek eskubidea du, abokatuaren eta prokuradorearen esku-hartzea derrigorrezkoa ez denean, bere eskubideak auzitegietan egikartzeko beharrezko diren formularioak doan eskuratzeko.

**2.1.2.1 Irudia:** Gutunean Ulertzeko Eskubideari aipamen egiten zaion zatia<sup>2</sup>

2.1.2.1 irudian adierazten den moduan, herritarrek eskubidea dute jakinarazpen, zitazio, epatze, errekerimendu judizial, epai eta ebazpen judizialek kontzeptu erraz eta ulergarriak izateko eta beldurtzeko elementurik ez izateko. Era berean, herritarrek eskubidea dute prozesu baten bistan zehar, zuzenbidean adituak ez diren guztiek ulertzeko moduko hizkera erabiltzeko. Beste era batera esanda, testu hau onartu zenetik berriaz aitorturik dute herritarrek bitartekari baten laguntzarik gabe zuzenbidean adituak diren pertsonen ahozko komunikazio eta idatziak Ulertzeko Eskubidea (Ureta, 2012: 105-106).

Harrezkero, erakunde publikoek eskubide hori bermatzeko legezko betebeharrak osoa dute, eta jada ari da, hain zuzen ere, jurisprudenzia sortzen honekin lotuta. Adibidez, lurzoru klausularen kasuan atzera bota dira zenbait errekurtsio gardentasun faltagatik; hau da, klausuletan erabilitako idazkera ez zela ez ulergarri eta ez argia argudiatu da herritarren alde emandako sententzia batzuetan.<sup>3</sup>

<sup>1</sup> [Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituneko](#) 14.1 artikuluan eta [Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko](#) 6.artikuluan ere gauza bera aurreikusten da.

<sup>2</sup> Iturria: [Justizia.eus webgunea](#)

<sup>3</sup> AGE (Zibileko Sala) 1916/2013, 2013ko maiatzaren 9koa eta AGE (Zibileko Sala) 53/2018, 2018ko otsailaren 1ekoa.

Legezko betebeharrak hori gogoan izanda, 2009. urtean Espainiako Gobernuak, Justizia Modernizazioaren Planaren babespean, Hizkera Juridikoaren Modernizaziorako Batzorde bat sortu zuen egoeraren azterketa egin, eta gomendio-txosten bat egin zezan. Batzorde honek ekarpen interesgarriak egin ditu azken urteotan. Baina, jakina, ez da erraza botere publikoen instituzioetan lan egiten duten pertsona guztiengana ere heltzea.

## **2.2 Ulertzeko Eskubidearen aldeko ekimenak nazioartean**

Behin Ulertzeko Eskubidea zertan datzan argituta, eskubide honek munduan zehar duen garrantzia eta erabilera aipatuko ditut. Gainera, zenbait estatuen azterketa egin aurretik, nazioarte mailan jarduten duten mugimenduen azterketa egingo dut.

### **2.2.1 Ulertzeko Eskubideari aldeko nazioarteko erakundeak**

Ulertzeko Eskubidea munduko estatu ugarian aintzat hartzen da. Areago, nazioarteko hainbat elkarte daude eskubide hori garatu eta bermatzearren lanean:

- [\*Clear Europe\*](#) Bruselan dagoen komunikazio bulegoa da eta bertako kideak kazetaritzan, politikan eta komunikazioan adituak dira. Pertsona hauek dokumentuak ongi egiten erakustez arduratzen dira eta horretarako, idatzi eta editatzeko [\*ikastaroak\*](#) eskaintzen dituzte eta konferentziak egiten dituzte komunikazio-estrategiei buruzko gomendioak emateko. Bereziki, Europar Batasuneko erakundeentzat egiten dute lan.
- [\*Commonwealth Association of Legislative Council \(CALC\)\*](#) Australiak babesten duen elkarte da baina ez dago Australiako gobernuaren menpe. Bere helburua, hizkera juridikoan adituak diren pertsonen eta legeak idazten dituzten pertsonen kooperazioa sustatzea da.
- [\*The American Society of Writers on Legal Subjects \(SCRIBES\)\*](#) lege dokumentuak idazten dituzten operadoreek osatutako elkarte da. 1951. urtean sortu zen eta gaur egun programa ugari egiten dituzte hizkera argia sustatzeko, sariak ematen dituzte eta aldizkari propioa dute.
- [\*International Language and Law Association \(ILLA\)\*](#) nazioarteko aditu ezberdinek osatzen duten elkarte bat da. Aldizkari propioa dute eta konferentzia ugari eskaintzen dituzte era argian idazteko gomendioak emateko.
- [\*Centro Latinoamericano de Administración para el Desarrollo \(CLAD\)\*](#) 1972. urtean sortu zen nazioarteko erakunde bat da eta bere helburua, estatuaren

erreformari buruzko esperientzia eta ezagutzak partekatzea eta Administrazio Publikoaren modernizazioa bultzatzea da.

- [European Legal English Teachers Association \(EULETA\)](#) irakasle, hizkuntzalari eta abokatuen elkarte da eta helburua, eremu juridikoko hizkera egokia irakastea da. Konferentziak antolatzen dituzte mundu mailako estatu ugarietan 2007. urtetik.

Elkarte hauek lan handia egiten dute eremu honetan baina beste bi elkarteri buruzko aipamen zehatza egin nahiko nuke orain, bereziki indartsuak baitira eta eragin handia baitute hizkera juridiko argia bultzatzeko mugimenduetan.

### 2.2.1.1 Plain Language Association International elkarte

Machadoren arabera (2017: 14-15), artean aurrekari ahul batzuk egon arren, 70.hamarkadan hasi zen *Plain Language* edo *Lenguaje Claro*-ren erabileraren defentsa. Garai hartan egindako proposamenen helburua, hizkera juridikoa herritarren ohiko hizkerara hurbiltzea zen.



2.2.1.1.1 Irudia: PLAIN elkartearen logoa<sup>4</sup>

*Plain Language* mugimendua oinarri izanda [Plain language association internacional \(PLAIN\)](#) irabazi asmorik gabeko elkarte sortu zen Kanadan, 2008ko uztailean.

Elkartea 20 estatutako profesionalek osatzen dute, eta hamar hizkuntzaren inguruan egiten dute lan. Hau da haien helburua: hizkera argiaren bidean proposamen praktikoak egitea. Hizkuntza-gaiei erreparatzen diete gehienbat: lexikoa, sintaxia, puntuazio-markak...

Elkartearen webgunera jotzen badugu, [bertako arduradunen datuak](#), [urteko txostenak](#), [dohaintzak egiteko modua](#), [egindako kongresuak](#), euren helburuekin lotutako [albisteak](#) eta [hizkera argiari buruzko informazioa](#) eskuratu ditzakegu.



2.2.1.1.2 Irudia: PLAIN elkartearen webgunearen azala<sup>5</sup>

Twitter kontu bat ere badute ([@PLAIN\\_Lang\\_Intl](#)) eta hizkera argiari buruzko albiste eta gomendio ugari banatzen dituzte horren bitartez.

<sup>4</sup> Iturria: [Plain Language Association International elkartearen webgunea](#)

<sup>5</sup> Iturria: [Plain Language Association International elkartearen webgunea](#)

### 2.2.1.2 Clarity elkarte



2.2.1.2.1 Irudia: Clarity elkartearen logoa <sup>6</sup>

[Clarity](#) elkarte John Waltonek sortu zuen 1983. urtean, hizkera juridikoa arkaikoa eta konplexuegia zela pentsatzen zuelako.

*UK Law Society Gazette* aldizkarira gutun bat idatzi zuen gainerako abokatuek hizkera juridikoaren pentsamendu bera ote zuten jakiteko eta 28 abokatuk erantzun zioten. Era honetan, *Clarity* elkarte sortu zuten denon artean eta gaur egun 50 estatuetako 650 kidez osatua dago. Irabazteko asmorik gabeko talde honen helburua, testu juridikoetan hizkera argia erabiltzea eta eremu hori garatzeko nazioarteko lantalde bat eraikitzea da.

*Plain Language* mugimendua ez bezala, *Clarity* edo *Comunicación Clara* mugimenduek “komunikazioaren” kontzeptua hartzen dute ardatz, eta hizkeratik harago doazen alderdiei erreparatzen diete: tipografiak, irudiak, koloreak, ahotsaren erabilera, etab.

Erakunde honen webgunearen [“ABOUT”](#) ataleko [“ABOUT US”](#) azpiatalean sartuta, *Clarity*-ren eraketa akta eskuratu daiteke. Era berean, [elkartearen goi karguak eta estatu bakoitzeko ordezkariak](#), [dohaintzak egiteko modua](#), [egindako kongresuak](#), [The Clarity Journal](#) deituriko aldizkaria propioa, [gomendatutako artikuluak](#), eta [albiste interesgarriak](#) eskura daitezke.



2.2.1.2.2 Irudia: Clarity elkartearen webgunearen azala<sup>7</sup>

Twitter kontu bat ere badaukate ([@ClarituInterna](#)) eta bertan hizkera argiari buruz antolatzen dituzten ekitaldiak aipatzen dituzte, bai eta bestelako albiste esanguratsuak ere. Adibidez, 2018ko urriaren 25-27 bitartean Montrealen *Clarity*-k “Plain Language in Modern Times” biltzarra antolatu du.

## 2.2.2 Ulertzeko Eskubidearen aldeko ekimenak Europar Batasunean

Europar Batasunean 1995.urtean EBren Erabaki baten bidez xedatu zen formalki hizkera argia eta erraza erabili beharra: [Europar Batasunaren Ekonomia eta Gizarte Batzordearen 95/C 256/03 erabakia, Hizkera argia eta erraza erabiltzeari buruzkoa](#).

<sup>6</sup> Iturria: [Clarity elkartearen webgunea](#)

<sup>7</sup> Iturria: [Clarity erakundearen webgunea](#)

Erabakiaren sarreran azaltzen den moduan, 1992ko Maastrichteko Itunari buruzko eztabaidak erakutsi zuen herritarrek ez zutela une hartan Europar Batasuna erabat eta besterik gabe onartzen. Europak herritarren nahiak bete nahi bazituen beharrezkoa zen komunikazio eraginkorragoa, eta horretarako, funtsezkoa ikusten zen hizkera egokia erabiltzea. Hizkera-modua berrantolatu behar dela azpimarratzen zen, bai eta hizkera argi eta erraza erabiltzea oinarrizkoa zela EB komunitate irekiagoa izango bazen.

Testu horretan bertan azpimarratzen zen hizkera argia eraginkorragoa dela, horren bidez jendeak errazago ulertu ahal izango baititu dokumentu ofizialak laguntzarik gabe. Era berean, itzulpenak egitea ere errazagoa, azkarragoa eta merkeagoa da hizkera erraza erabiltzekotan. Gainera, EBren asmoak eta printzipioak onargarriagoak izango lirateke herritarren begietan, herritarrak Europako erakunde eta araudietatik hurbilago ikusiko bailukete euren burua.

Alabaina, dokumentu horretan aitortzen zen zaila izan daitekeela funtzionarioek ohiko jargoia erabiltzeari uztea: Oso ohituta omen zeuden hitz konplikatu eta esaldi luzeak erabiltzera. Hori horrela, 1992ko ekainaren 10ean Europako Legebiltzarrean egindako deklarazio batean, Jacques Delors Batzordeko buru zenak irmo aldarrikatu zuen erraz idazteko bidea bilatu beharra. Hilabete batzuk beranduago, 1992ko urriaren 16ko Birminghameko Konferentziaren Deklarazioan berretsi egin zen aldarrikapen hori eta 1993ko ekainaren 8an Kontseiluak ebazpen bat onartu zuen, komunitateko legeen idazkeraren kalitateari buruz eta baita xedatu ere, aurrerantzean komunitateko legeak ulerterrazak eta eskuragarriak izan beharko luketela, emandako irizpide zehatzei jarraituz. Paradoxikoki, ebazpen hori ez zen hizkera argi eta errazean idaztea lortu.<sup>8</sup>

Kontuak kontu, Kontseiluaren 1993ko ebazpenean xedatutakoari jarraiki, Batzordeak hainbat jarraibide finkatu zituen lege-testuak eta dokumentu juridikoak egiteko. Denboran aurrera, irizpide horiek garatu eta osatu egin dira. Praktikara ere modu sistematikoan eraman dira. Irizpide horiek aplikatzeko jarraibideak eta urteetan bildutako esperientziaren emaitzak hainbat dokumentutan jaso dira. Horietako batzuk eskuragarri daude Europar Batasunaren webguneetan. Hona hemen adierazgarrienak:

- [EBko hizkeraren hiztegia.](#)

---

<sup>8</sup> Europar Batasunaren Ekonomia eta Gizarte Batzordearen 95/C 256/03 irizpena eta 1993ko ekainaren 8ko Kontseiluaren ebazpena, (1993an idatzi zen moduan (Anexo A) eta ebazpen berdina hizkera argian idatzita (Anexo B)): <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:51995IE0797&from=ES> [Azken kontsulta 2018/04/09]



- [Interneten idazteko gomendioak](#).
- [Fight the Fog](#) ekimenaren dokumentuak.
- Europar Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2000.urtean emandako [Guía práctica común del Parlamento Europeo, del Consejo y de la Comisión para la redacción de textos legislativos de la Unión Europea](#).
- Europar Batzordeak 2010.urtean emandako [Guía del Departamento de Lengua Española](#).
- 2010.urtean Europar Batzordeak antolatutako Bruselako konferentziari buruzko [Clear writing through Europe](#) txostena.
- [Comité Interinstitucionalak](#) koordinatutako 2011ko [Libro de estilo interinstitucional](#). Bertan Europar Batasuneko organo eta instituzioen normalizazio linguistikoa lortu nahi da.
- Europar Batzordeak 2013an idatzitako [Como escribir con claridad](#) eskuliburua.
- Europar Batzordearen 2016ko [Claire's Clear Writing Tips](#) txostena.

Ildo honetatik, ekimen ugari jarri dira martxan Europar Batasuneko eta EBtik kanpoko herrialdetan. Jakina, Ulertzeko Eskubidea ezin izango da berdin gauzatu herrialde eta gizarte guztietan, besteak beste, legegintza-prozesuak, tradizio juridikoa, gizartearen ezaugarriak, bertako hizkuntzen bereizgarriak eta garapen ekonomiko zein soziala ez baita berdina toki guztietan. Jarraian aipatzen dira hainbat esperientzia esangarri.

### 2.2.2.1 Zer egin den Ulertzeko Eskubidearen alde Erresuma Batuan

Erresuma Batuan aspaldi hartu zen aintzat hizkera juridiko soilaren aldarrikapena. Oso errotuta dago ideia hau, eta hainbat plangintza garatu dituzte ideia hori garatzeko.

1971. urtean, Chrissie Maher-ek eta zenbait herritarrek “Tuebrook Bugle” egunkaria sortu zuen. Emakume honek, bere lanean argi ikusi zuen gobernuak idazkera konplexua erabiltzen zuela eta herritarrek ez zituztela haren testuak ulertzen. Hori oinarri izanda, gobernuak hizkera argian idazteko ekimen ugari bultzatu zituen eta aurrerapen asko lortu zituzten.

Eremu honetan, 1979an sortutako [Plain English Campaign](#) elkartea aipatu dugu lehen.




2.2.2.1.1 Irudia: Plain English Campaign elkartearen logoa<sup>9</sup>

<sup>9</sup> Iturria: [Plain English Campaign elkartearen webgunea](#)

Carretero, C. eta beste aditu talde baten arabera (2017: 21), talde honen helburu nagusia *gobbledygook* deituriko hizkera burokratiko konplexua bazterzea da. Era honetan, gobernuko idazkiak berridazteko politika bat finkatu zen eta horren arrakasta ikusita, abokatutzaren eremuan eta sektore pribatuan hainbat ikastaro eman ziren dokumentuak era argiagoan idatzi eta editatzen ikasteko.

Elkartearen webgunearen bitartez, [gidak](#), [testu juridikoak ulergarriagoak egiteko zerbitzuak](#) eta idazkera argiagoa izateko [ikastaroak](#) eskaintzen dituzte, besteak beste. Gramatika akatsak zuzentzen ikasteko online egin daitekeen [test](#) bat ere eskaintzen dute.



2.2.2.1.2 Irudia: Plain English Campaign elkartearen webgunearen atalak<sup>10</sup>

Twitter kontu bat ere egin badute ([@PlainEngCam](#)), eta horren bidez, Erresuma Batuko gobernu eta administrazioan hizkera juridikoari buruz egiten den lanaren berri zabaltzen dute nagusiki, eta baita hizkera argiaren gaiaren inguruan sortzen diren orotariko albisteen berri ere.

Elkarte honez gain, zenbait ekimen pribatu batzuk ere sustatu dira Erresuma Batuan: [Simplification Centre](#), [Clearest](#), eta [Statute Law society](#), adibidez. Era berean, gobernu eta parlamentuaren bidez ekimen ugari bultzatu dira arlo juridikoko komunikazio eta dokumentuak era argian adierazteko. Besteak beste, hauek aipatzen dira Hizkera Juridikoa Modernizatzeko Batzordeak 2010ean argitaratutako lanetako batean (Carretero, 2010: 47-50).

- *Renton Committee*-aren bidez txosten bat argitaratu zuten: [“The preparation of legislation: report of a committee appointed by the Lord President of the Council”](#).
- *The Public Administration Select Committee*-koek [komisio](#) bat sortu zuten, Administrazioa Publikoak emandako arauak berrikustearren.

<sup>10</sup> Iturria: [Plain English Campaign elkartearen webgunea](#)

- [Tax Law Rewrite Project](#), [Her Majesty's Courts Service](#), [National Consumer Council](#)-ek kontsumo kontratuetan erabiltzen den hizkera argia izateko gidak sortu zituen
- [Civil Service](#)-ek lan gida ugari eman zituen hizkera erraza erabiltzea sustatzearren.

### 2.2.2.2 Zer egin den Ulertzeko Eskubidearen alde Frantzian

Frantzian, Espainian bezala, hizkera administratiboa sinplifikatzeko zeregina duen Batzorde berezi bat sortu zuten 2001eko uztailaren 2an: [Comité d'orientation pour la simplification du Langage Administratif \(COSLA\)](#). Administrazioako arduradunek zein hizkuntzalariek osatzen dute komisio hau. Lankidetzan jarduten dute hizkera administratiboaren kalitatea hobetzeko bideak bilatzearren.

Ildo horretatik, hainbat ekimen bultzatu dituzte, besteak beste, formulario ugari berridatzi dituzte eta hizkera administratiboa sinplifikatzeko instrumentuak garatu dituzte.



2.2.2.2.1 Irudia: Batzordearen lanaren adibideak<sup>11</sup>

Ekimen honez gain, ekimen publiko gehiago sustatu dira Frantzian: Frantziako Justizia Ministerioaren [webgunean](#) terminologia juridikoa azaltzeko atalak daude, [Ley n° 2009-526 de simplification et de clarification du droit et d'allègement des procédures](#), [Mission de recherche Droit et Justice](#), [Commission de lois](#), eta Batzar Nazionalaren webgunean [Simplifions la loi](#) atalera jo daiteke.

<sup>11</sup> Iturria: [Ministère de la fonction publique et de la réforme de l'Etat](#)

### 2.2.2.3 Zer egin den Ulertzeko Eskubidearen alde Suedian

Suedian hainbat proiektu bultzatu dira arlo honetan. Alde batetik 1976ean arlo linguistikoko aditu bat kontratatu zen gobernuko dokumentuen hizkeraren modernizazioa antolatzeko, eta ondoren, adituen talde bat sortu zen lan hau egiteko; gaur egun [Klarspråksgruppen edo Plain Swedish Group](#) bezala ezagutzen dena (Carretero, C. eta beste, 2017: 21).



2.2.2.3.1 Irudia: Klarspråksgruppen elkartearen logoa<sup>12</sup>

Gaur egun, talde honen helburu nagusienetako bat hizkera simple, argia eta erraza erabiltzeko proiektuak egin eta sustatzea da. Hizkera argiaren aldeko posizioa hartu dute estatuko autoritateen eta herritarren arteko konfiantza handitzeko helburuarekin.

Helburu hori lortzeko kongresuak eta txostenak egiten dituzte, eta urtean lau aldiz *Plain Language Bulletin* (*Klarspråk*) deritzon buletinaren bidez haien ekimenen berri zabaltzen dute. Gainera, urtero *The Plain Swedish Crystal* saria ematen da hizkera argiari loturiko lan nabarmenena egin duen autoritatearentzat. Bestetik, testu bat era argian idatzi den jakin nahi bada, *Plain Language Test* (*Klarspråkstestet*) deritzon 30 galderetako test bat egin daiteke eta horrela, idazleak bere testuari buruzko iritzia eta hobetzeko gomendioak jaso ditzake.



2.2.2.3.2 Irudia: Klarspråk eta Klarspråkstestet<sup>13</sup>

### 2.2.3 Ulertzeko Eskubidearen aldeko ekimenak Amerikako herrialdeetan?

Aurreko puntuan, Europar Batasunaren eremuan Ulertzeko Eskubideari buruz egindako lanaren berri eman da, baina hasieran aipatu bezala, Ulertzeko Eskubidea nazioartean herrialde askotan aldarrikatzen den eskubidea da. Areago, zenbait herrialdetan oso

<sup>12</sup> Iturria: [elibrary.lt](http://elibrary.lt)

<sup>13</sup> Iturria: [Institutet för språk och folkminnen](http://Institutet_för_språk_och_folkminnen)

ekarpen interesgarriak egiten ari dira, bereziki, Ipar zein Hego Amerikako herrialdeetan. Herrialdearen arabera, lan interesgarriak ari dira garatzen, ingelesaren, frantsesaren zein gaztelaniaren erabilera eraberritzearen inguruan.

### 2.2.3.1 Zer egin den Ulertzeko Eskubidearen alde Kanadan

1971.urtean, gobernuak [Law Reform Commission](#) eratu zuen lege federal guztiak berrikusteko eta hobekuntzak planteatzeko. Carretero, C eta beste aditu talde batek dioten moduan (2017: 18), Kanadan idazkera legegileari buruzko batzordeak egiten dira *Law Reform Commission* eta *Uniform Law Conference*-en laguntzarekin.

Bertan hizkera arrunta eta argia erabiltzeko printzipioak adierazten dira, dokumentu araugileen idazkera estandarizatu eta modernizatzeko helburuarekin. Gainera, irakurlea nor den argi izan behar dela azpimarratzen da eta testua antolatzeko eta idazteko gomendioak ematen dituzte. Gainera, *Plain Language Centre* sortu zen Toronton estilo juridikoaren eta herritarrei begira erabili beharreko hizkeraren arloan artikulu, ikerlan eta eskuliburuak argitaratzeko.<sup>14</sup>

Ondoren, bestelako elkarte, antolakunde edo gobernuko organoek ere lan asko egin dituzte hizkera juridiko argiaren erabilera sustatzeko: [The Plain Language Coalition](#), [Alberta's Consumer and Corporate Affairs](#), [Canadian Institute for the Administration of Justice](#), [Department of Justice](#), [Court Services Division of the Department of Justice](#), [New Brunswick Courts](#), [Supreme Court of British Columbia](#), eta [Alberta Law Reform Institute](#).



2.2.3.1.1 Irudia: Kanadako gobernuaren webgunearen atala<sup>15</sup>

<sup>14</sup> Kanadako ekimen instituzionalen inguruko informazio gehigarria: <http://www.btb.termiumplus.gc.ca/tcdnstyl-chap?lang=eng&lettr=chapsect13&info0=13> [Azken kontsulta: 2018/04/09]

<sup>15</sup> Iturria: [Public Works and Government Services of Canada, Translations Bureau](#)

### 2.2.3.2 Zer egin den Ulertzeko Eskubidearen alde Amerikako Estatu Batuetan

Estatu Batuetako Kongresuan, *Revenue Act* bidez *Legislative Drafting Service* sortu zen 1918an. Hau da, Kongresuko ganbera bakoitzean departamentu bat sortu zen legeen kalitatea hobetzen lan egiteko.

Lege berezi bat onartu zen 1976.urtean arau juridikoetako hizkera argitzeko eta Richard C. Wydick adituak *Plain English for Lawyers* liburua argitaratu zuen abokatuak era argian idazteko aholkuak jasota 1978.urtean.<sup>16</sup>

Bertako PLAIN elkarteak ulertzen du funtsezkoa dela argiak izatea Gobernuak helarazten dituen komunikazioak. Horri lotuta, herritarrek ulertzeko moduko testuak idazteko irizpideak jasotzen dituen *The Plain Writing Act of 2010* dokumentua eman zen 2010ean.

Suedian bezala, AEBn ere hainbat sari daude praktika onak aitortzeko, besteak beste, *ClearMark Awards*, *Legal Writing Institute Awards*, *Burton Awards*, eta *National Institute of Health Awards*.

Elkartearen webgunean azaltzen den moduan, hizkera argian idazten trebatzeko online [ikastaroak](#) ere eskaintzen dira, bai eta [gomendio](#) ugari ere. Twitter kontu bat ere ireki zuten 2010. urtean ([@govplainlang](#)), eta hizkera argian idazteko gomendioak zabaltzen dituzte bertan.



2.2.3.2.1 Irudia: EEBBko PLAIN Language elkartearen webguneko azala<sup>17</sup>

### 2.2.3.3 Zer egin den Ulertzeko Eskubidearen alde Kolonbian

Kolonbian *Guía del Lenguaje Ciudadano para la Administración Pública colombiana* argitaratu zen 2010.urtean administrazioko hizkera eraberritzeko jarraibideak jasota (Carretero, C. eta beste, 2017: 18). 2014. urtean, berriz, 1712 Legea onartu zen: *Ley de Transparencia y del Derecho de Acceso a la Información Pública Nacional*. Lege horrek Ulertzeko Eskubidea araudian txertatzea ekarri zuen.

<sup>16</sup> Hemen eskuragarri AEBko ekimeni buruzko informazio gehigarria: <https://plainlanguage.gov/> [Azken kontsulta: 2018/04/09]

<sup>17</sup> Iturria: [EEBBko Plain Language elkartearen webgunea](#)



2.2.3.3.1 Irudia: Gidaren azala <sup>18</sup>

Ildo horretatik 2015.urtean, aditu talde batek (Mora Garzón, J.A. eta beste) [Guía de Lenguaje Claro para Servidores Públicos colombianos](#) idatzi zuten. Gida hau oso aberatsa da eta bertan, Kolonbiako gobernuak egindako lanak aipatzen dira, hizkera argia zer den argitzen da, zergatik den garrantzitsua azpimarratzen da, eta hizkera argian idazteko pausuak eta gomendioak ere ematen dira.

Kolonbiako *Departamento Nacional de Planeación* (DNP) delakoak Twitter kontu bat dauka ([@DNP\\_Colombia](#)) eta gobernuko informazioa ematen du bertan. Besteak beste, estatuko dokumentuen hizkera juridikoaren inguruan egiten diren ekimenen berri ematen da bertan. Era berean, aukera eskaintzen die herritarrei ulergaitzak iruditu zaizkien dokumentuen berri emateko. Horrela, bi norabideko dinamika sortzen da Ulertzeko Eskubidearen inguruan.

#### 2.2.3.4 Zer egin den Ulertzeko Eskubidearen alde Mexikon



2.2.3.4.1 Irudia: Gidaren azala <sup>19</sup>

2004. urtean Valdovinos, C. eta beste aditu talde batek [Lenguaje Ciudadano: Un manual para quien escribe en la Administración Pública Federal](#) eskuliburua egin zuten. Lan honen helburua administrazio publikoko langileen artean *Lenguaje Ciudadano* delakoaren ikuspegia sustatzea da, bide horretatik Administrazio Publiko Federalaren komunikazio idatzia hobetuko delakoan.

Izan ere, eskuliburuaren sarreran jasota dagoenez, herritarren eskubidea da administrazio publikoa gardena izatea eta bere komunikazio eta kontu guztiak ulergarriak izatea.

Hori gogoan, zenbait ildo estrategiko finkatu zituen administrazioak *Agenda de Buen Gobierno* plangintzaren tetuinguruan: “Gobierno que Cueste Menos”, “Gobierno con Calidad”, “Gobierno Profesional”, “Gobierno Honesto y Transparente”, “Gobierno Digital” eta “Gobierno con Mejora Regulatoria”. “Gobierno con Mejora Regulatoria” proiektuaren testuinguruan *Lenguaje Ciudadano* ekimena abiatu zen 2004ko urriaren 5an.

<sup>18</sup> Iturria: [Portal Tributario de Colombia](#)

<sup>19</sup> Iturria: [Lenguaje Ciudadano: Un manual para quien escribe en la Administración Pública Federal](#)

Aipatutako gidan, zehaztasunez azaltzen da zein diren *Lenguaje Ciudadano* ekimenaren helburuak, lan-ildoak eta aplikazio-eremuak. Era berean, testu argiak egiteko jarraibideak eta estilo-gomendioak ere eskaintzen dira bertan.

Ildo beretik, *Secretaría de la Función Pública* delakoak [Manual de Lenguaje Claro](#) lana argitaratu zuen 2007. urtean. Bertan hizkera errazagoan idazteko eta komunikazioa hobetzeko gomendioak ematen dira. Lan honetan bereziki azpimarratzen da funtsezkoa dela testuaren hartzailea erdigunean jartzea, alegia, erabaki guztiak irakurlearen soslaiaren arabera hartzea. Ildo horretatik, idazteko prozesuan neurri zuzentzaileak txertatzeko jarraibideak ematen ditu. Horrez gain, egitura gramatikal jakinen erabilerari buruzko argibideak ere eskaintzen dituzte.

### **2.2.3.5 Zer egin den Ulertzeko Eskubidearen alde Argentinan**

1998.urtean [24.967 Legea](#) onartu zen (*Digesto Jurídico Argentino* gisa ere ezagutua) legeak eta erreglamenduak kontsolidatzeko prozesu eta printzipioei buruzkoa. Ekimen hori izan zen Ulertzeko Eskubideari Argentinak bide egin zion lehena. 1999.urtean, proiektua bi adarretan garatzen hasi zen. Alde batetik, legegintzako eskuliburua lantzen hasi ziren. Beste alde batetik, 1853tik idatzitako lege-testuen idazkera berrikusi eta eguneratzen hasi ziren. 2007.urtean, Bourbonek [Manual de Técnica legislativa](#) egin zuen eremu honetan bildutako esperientziaren emaitza gisa.

Ildo beretik, 2016. urtean Argentinako Justizia eta Giza Eskubideen Ministerioan [Justo Vos](#) programa sortu zen 431/16 ebazpenaren bidez, [JUSTICIA 2020](#) izeneko erreforma-planaren baitan. *Justo Vos* programak hainbat helburu ditu. Hauek, horietako batzuk:

- Argentinar guztiak elkar ditzaketen balore demokratiko errepublikanoak lantzea.
- Elkarrizketan eta akordioan oinarritutako kultura eraikitzea
- Kultura demokratikoarekin konprometituko diren herritarrak trebatzea.
- Herritarren eskubideak eta erantzukizunak zein diren ezagutzeko bideak erraztea.
- Legeak, eskubideak eta obligazioak ezagutaraztea.
- Legeak ulergarri egiteko ekimenak sustatzea

*Justo Vos* programaren barruan, [Justicia en lenguaje claro](#) ekimena sustatu da. Ekimen horren helburua da informazio juridikoa ulergarriagoa egitea. Horretarako, oinarritzko



legeak, dekretuak eta ebazpenak hizkera argian azaltzen dituzte, herritarrei euren eskubide eta obligazioak ezagutaraztearren. Ekimen honen parte dira azpi-proiektu ugari:

- [Derecho Fácil](#): Proiektu honen bidez hizkera argian idatzitako zerbitzuak garatu eta zabaltzen dituzte ([Ley Simple](#), [Lectura Fácil](#), [Boletín Oficial Fácil](#), [Capacitación](#)). Besteak beste, dokumentazio juridikoa hizkera argiaren irizpideen arabera “egokitzen” dute.
- [Justicia Cerca](#): Zuzenbidearekin lotuta dauden egoeretan herritarrek izan ditzaketen arazoei erantzunak bilatzen saiatzen dira proiektu honetako kideak.
- [Wiki Ius](#): Termino juridikoen glosario parte-hartzailea da. Bertan, hizkera argian ematen dira kontzeptu juridikoen inguruko argibideak. Helburua, informazio juridikoa modu hurbilagoan azaltzea da, eta gainera, komunitateari irekita dagoenez, herritar guztiek nahi dituzten ekarpenak egin ditzakete.
- [Voces por la Justicia](#): Justiziaren baloreak transmititzen ditu ikus-entzunezko baliabide edo grafikoaren bidez. Herritarren parte hartzea ere sustatzen dute online plataformaren bidez.



2.2.3.5.1 Iruñia: *Justicia en lenguaje claro* ekimenaren pantaila-irudia<sup>20</sup>

### 2.2.3.6 Zer egin den Ulertzeko Eskubidearen alde Perun

XXI. mende hasieratik Peruko justizia saiatzen ari da euren zerbitzuak eskuragarriago eta erabilgarriagoak egiten. Barruti judizial ugari sortu dituzte Limatik urrun dauden herrietan eta estatuko talde ahulenei lotutako proiektu ezberdinak egin dituzte. [Justicia en tu Comunidad](#) ekimena ere da aipagarri; kasu honetan, Peruko epaileek euren lan orduetatik kanpo hitzaldiak, irrati-programak eta egunkarietako aldizkariak egiten dituzte hizkera argian herritarren egunerokoan sor daitezkeen arazoei buruz iruzkinak egiteko.

<sup>20</sup> Iturria: [Argentinako gobernuaren webgunea](#)

Ildo beretik, 2014.urtean [Manual judicial del lenguaje claro y accesible a los ciudadanos](#) eskuliburua osatu zuten Kenneth Garces Trelles eta Mariana Montes Bravo adituek. Hauen ustez, herritarren eta gobernuaren artean konfiantza-eza eta deskonexio handia dago, eta justizia herritarrengandik urruti dagoenez, herritarrek ez dute uste epaitegietan euren arazoei konponbidea ematen zaienik. Beraz, herritarrenganako konfiantza handitu nahi da eta horretarako beharrezkoa da gehiago eta hobeto komunikatzea.




2.2.3.6.1 Irudia:  
Eskuliburuaren azala <sup>21</sup>

Idea hori oinarrian hartuta egin zen eskuliburua eta eremu juridikoan jarduten duen orori dago zuzenduta. Bere helburua, euren egunerokotasunean hobe komunikatzeko irizpideak eskaintzea da.

Horren bidez, Botere Judizialak herritarrei emandako dokumentazioa era argian idaztea lortu nahi da, alegia, informazioa eraginkorra izan dadin bermatzea da azken helburua. Izan ere, dokumentazio juridikoa herritarren esku ipintzea ez da nahikoa, haiek jakinaren gainean egon daitezen, gerta baitaiteke herritarrek ez ulertzea dokumentazio hori.

Eskuliburu honetan bibliografia zabala erabili da, eta horien artean jasotzen da 2005eko *IVAPeko Estilo Liburuaren* gaztelaniazko bertsioa: [Libro de Estilo del IVAP](#).

### 2.3 Komunikazio Argiaren aldeko mugimenduaren ekarpenak



2.3.1 Irudia: Komunikazio argiaren eskema <sup>22</sup>

Argiro komunikatzea herritarrentzat garrantzitsua den informazioa modu erraz, zuzen, garden, sinple eta eraginkorrean transmititzean datza. Hori horrela, Komunikazio Argia ekimenak herritarrek informazioa eskuratzeko dituzten tresnak eta gobernuko zerbitzuak hobetzea du azken jomuga. Horren bidez, herritarrek erakunde publikoetan duten konfiantza areagotu nahi da, ulertzeko zailak diren dokumentuek sortzen duten frustrazioa saihestu nahi da, eta segurtasun juridikoa ere areagotu nahi da.

<sup>21</sup> Iturria: [Manual judicial del lenguaje claro y accesible a los ciudadanos](#)


<sup>22</sup> Iturria: [Prodigioso Volcan](#)

Horretarako, hizkera argiaren aldeko ekimenek egindako ekarpenez harantzago egiten du lan Komunikazio Argia mugimenduak. Besteak beste, webguneen eta aplikazioen diseinuak, bertan erabiltzen diren tipografiak eta koloreak, informazioa dokumentuetan eta webguneetan duen antolamendua, ez-hitzezko komunikazio-elementuen eragina eta antzekoak hartzen dira aztergai ikusmira honetan.

Izan ere, Montolíok eta Tascónek dioten moduan (2017-b: 5), komunikazio argia ez datza soilik hizkuntzaren erabileraren baitan, beste baliabide batzuk baititugu eskura dokumentuak eta komunikazioak garatzeko orduan.

Alabaina, aipatutako bi adituek Komunikazio Argiaren Gidan azaltzen duten bezala (2017-a: 6), komunikazio argiaren planteamendua ezartzeak metodologia zorrotza aplikatzea eskatzen du. Hain zuzen ere, herritarrei eragiten dieten dokumentu eta komunikazioetan lan egin behar da baina baita ere estatuko organismoen barne komunikazioan, modu integral eta integratuan.

Horrela, lau ardatz ditu hartzen ditu jomugan Komunikazio Argiak: hizkera bisuala, espezialitatezko hizkerak, neurohizkera eta hizkera argia. Ardatz bakoitzak komunikazioaren eremu bati egiten dio erreferentzia eta denak hartzen dira kontuan dokumentuak eta komunikazioak prestatzeko orduan.



2.3.2 Irudia: Komunikazio argiaren eskema <sup>23</sup>

Hizkera bisualak erreferentzia egiten dio testu, argazki eta formen arteko konbinazioari. Hain zuzen ere, testu on bat tipografia txarrarekin idazten bada ez da ulergarria izango. Beraz, tipografia bera (letren tamaina eta mota) eta espazioak era egokian erabili behar dira testua erraz ulertuko bada. Era berean, argazkiak eta bideoak ere oso lagungarriak izan daitezke eta osagarri gisa erabiltzea gomendagarria da, baina testuen ordezkari gisa ere erabili daitezke.

Espezialitateko hizkerari dagokienez, bestalde, ezagutza eremu bakoitzak bere diskurtso-ohiturak eta tradizioak jasotzen dituzte, eta horiek kontuan hartu behar lirateke dokumentuak eta komunikazioak prestatzeko orduan. Hau da, oso kontuan hartu behar dira espezialitate-eremuaren komunikazio arauak izan ere, espezialitatezko hizkera

<sup>23</sup> Iturria: [Madrilgo Udala](#)

bakoitzak terminologia zehatza, testu genero propioak eta esaldi mota bereziak izan ohi ditu.

Neurohizkera: ikuspegi honek informazioa prozesatzen duten mekanismo mentalei erreparatzen die. Mekanismo horiek aintzat hartuta, irakurketa errazagoa egin dezaketen irizpideak aplikatu daitezke dokumentua edo komunikazioa sortzeko orduan: zenbat informazio eman, nola antolatu informazioa, nola erraztu ideia nagusien komunikazioa..

Azkenik, hizkera argia dugu eta honek erreferentzia egiten dio testu, lexiko eta gramatikari. Hau da, hizkera argiak testu bat ulergarria izateko erabili behar den hizkerari buruzko adierazpenak egiten ditu eta zehazki, lexiko eta gramatikan zentratzen da.

Alegia, hizkera argiaren ildotik egindako ekarpenak ezinbestekoak dira komunikazio prozesua eraginkorra izan dadin. Alabaina, ildo horretatik egindako ekarpenei beste batzuk erantsi behar zaizkie komunikazioa bera argia eta eraginkorra izango bada (Montolío eta Tascón, 2017-b: 13): informazioa modu egokian banatzea eta antolatzea, irudiak txertatzea, termino edo esapide jakinen inguruko argibideak ematea, tipografia egokiak aukeratzea...

Ildo horretan hainbat esperientzia egin dira azken urteotan. Bereziki azpimarragarria da [Madrilgo Udalak sustatutako programa](#), Madrilgo Udalaren [Komunikazio Argiaren Gidan](#) laburbilduta datorrena (2017: 11-79). Horren arabera, testu bat komunikazio argian idazterako orduan ondorengo pausuak jarraitu beharko lirateke:

1. Eman nahi den informazioaren plangintza egin.
2. Testuaren egitura zein izango den pentsatu.
3. Testua idatzi.
4. Testua editatu eta osatu.
5. Argazkiak gehitu.
6. Testuaren diseinua landu.
7. Bideoen bat gehitu (online plataforma batean argitaratzean).
8. Idatzitakoa errepasatu.

Jakina, horiek oinarrizko irizpideak baino ez dira; prozesuaren abiapuntua, alegia. Izan ere, Montolío eta Tascónek dioten bezala (2017-b: 6 eta 24), mezua gehiegi “errazteak” berak zenbait arrisku dauzka, era egokian egiten ez bada.

Ildo horretatik, zenbait aditu taldek zalantzan jarri izan dituzte komunikazio argia bultzatzen duten hainbat programa. Euren aburuz, komunikazioak ezdeus edo zehaztugabe egiten ditu horrek, eta ondorioz, eurek transmititu nahi duten helburua ongi ez ulertzea ekar dezake, arazo garrantzitsuak sortuz.

Kontrako aldean, komunikazio argiaren funtsa eta eraginkortasuna aztertuz, abantaila ugari ekar ditzakeen bide bat dela azpimarratu dute aurretik aipatutako bi adituek.

Alde batetik, Komunikazio Argiaren bidetik, herritarrek kritikatzeko duten testuen gardentasun faltari aurre egiten zaio eta haien konfiantza handitzea lortzen da. Era berean, ulertzeko zailak diren dokumentu eta prozesu administratiboek sor dezaketeko kezka murrizten da eta organismoen ospea areagotu egiten da.

Beste aldetik, komunikazio argia erabiltzeak informazioa eskuratzeko bideak demokratizatu egiten ditu eta herritarren eta administrazioaren arteko informazio trukaketa errazten eta indartzen du.

Gainera, aurrezpen ekonomikoa dakar. Izan ere, irakurketan erabiltzen den denbora eta esfortzua gutxitzen da, izapideak azkarrago egiten dira eta kudeaketa modu hobean antolatzen da, herritarren zalantzak, kexak eta kontsultak murrizten baitira.

Azkenik, aipatu behar dugu Komunikazio Argia ez dela eskubide bat soilik, obligazioa ere bada eta obligazioa ez betetzeak, ondorio juridikoak dakartza. Honen adibide ditugu, besteak beste, lanaren hasieran aipatutako Auzitegi Gorenaren epaiak.

## **2.4 Irakurketa Errazaren aldeko mugimenduaren ekarpenak**

Ulertzeko Eskubidearen eta komunikazio argiaren mugimenduaren adierazpenak egin ondotik, herritar guztiok dugun Ulertzeko Eskubidea defendatzen duen mugimendu bat aztertuko dut; zehazki, ezgaitasun kognitiboa edo intelektuala duten pertsonen kasuan oinarritzen dena. Irakurketa Erraza deritzo mugimenduari, eta gainera, eremu honetan lan egiten duen elkarte bat dago Euskal Autonomia Erkidegoan.

### **2.4.1 Irakurketa Errazaren kontzeptua**

Testu bat irakurketa errazean edo hizkera errazean idatzita egongo da hizkera argi eta erraza erabili bada; eta horrela, testuan adierazitako informazioa ezgaitasun kognitiboa

edo intelektuala duten pertsonak ulertzeko modukoa izango da. Beraz, ezgaitasunak dituzten kolektiboen premia bereziak hartzen ditu kontuan.

Baina noski, Montolío eta Tascónek aipatzen duten moduan (2017-b: 12), hizkera erraza erabiltzeak ez du esan nahi haur-mintzaira edo lagunarteko hizkera erabili behar denik, nahikoa da hizkera nahasgarria ez erabiltzea eta mezua ongi egituratua egotea.

Carretero, C. eta beste aditu talde batek ondorengo gomendioak eskaintzen dituzte hizkera argian komunikatzeko orduan, besteak beste (2017: 12-14):

1. Idatzizko komunikazioetan:

- Esan nahi dena pentsatu eta nola esan nahi den pentsatu.
- Hartzaileari egokitu helarazi nahi den mezua.
- Perpaus eta paragrafo laburrak idatzi.
- Mendeko esaldiak ekidin eta forma aktiboan idatzi.
- Argazkiak edo grafikoak erabili testuak ordezkatzeko.
- Arkaismoak eta RAEk oraindik onartu ez dituen neologismorik ez erabili.
- Idatzitako testua errepasatu.

2. Ahozko komunikazioetan:

- Helburua zein den pentsatu eta hori kontuan hartuta, esan beharrekoa prestatu.
- Hitz teknikoak azaldu.
- Hasieran eskema bat egin ideia guztiekin eta ondoren ideia bakoitza azaldu.
- Bukatzeko, azaldutakoaren laburpena egin.
- Tonu medioa eta bokalizazio argia erabili, eta mantso hitz egin segurtasuna adieraziz.
- Aurretiaz entseatu.
- Keinuak eta gorputzaren mugimenduak erabili.

Eremu honetan lan egiten du [Irakurketa Errazaren Institutuak](#).



2.4.1.1 Irudia: Irakurketa Errazaren logoa<sup>24</sup>

<sup>24</sup> Iturria: [Irakurketa Errazaren Institutuaren webgunea](#)

Euren webguneko [“¿Quiénes somos?”](#) atalean adierazten den moduan, bi egitura ezberdin ditu.

Alde batetik, irabazteko asmorik gabeko asoziazioa da eta bere helburua, pertsona guztiok gure inguruan dugun informazioa ulertzeko dugun eskubidea defendatzea da. Beste aldetik, proiektuak gestionatzeaz arduratzen den bigarren graduko kooperatiba espezializatu bat dauka. Bertako lanetan parte hartzen dute desgaitasun intelektuala duten pertsonak, bai eta irakurtzeko arazoak dituzten beste kolektibo sozialetako pertsonak; hala nola, adineko pertsonak, eskusio egoeran dauden gazteak, garuneko erasanak dituzten pertsonak eta hizkuntza kontrolatzen ez duten pertsonak.

Beraz, webguneko [“defensa de derechos”](#) atalean azaldu bezala, Institutuak pertsona guztiak informatuta egoteko eta informazioa ulertzeko duten eskubidea defendatzen du eta hori lortzeko, araubideak, berrikuntzak, ikerketak, eta administrazio eta instituzioekin akordioak egiten dituzte.

Aipatu bezala eta webguneko [“proyectos realizados”](#) atalean adierazten den moduan, Irakurketa Errazaren Institutuak proiektu ezberdinak lantzen ditu eta horren adibide dira urtean zehar antolatzen dituzten [jardunaldiak](#), *Instituto Nacional de Administración Pública* (INAP) -ren [webgunean](#) Irakurketa Errazeko atal bat egin dute, eta Dirección General de Tráfico (DGT) -aren bide hezkuntzako gida laburrak Irakurketa Errazean idatzi dituzte.

Óscar García Muñozek ere dokumentu ugari idatzi ditu irakurketa errazean eta [Dilofacil](#) webgunean daude eskuragarri.

## 2.4.2 Irakurketa Erraza Euskal Herrian

Euskal Herrian eremu honetan lan egiten duen kolektibo bat dago, [Lectura Fácil Euskadi – Irakurketa Erraza](#) deiturikoa eta 2012.urtean sortu zen.



2.4.2.1 Irudia: Elkartearen logoa <sup>25</sup>

Bertako webguneko [“¿Qué es Lectura Fácil?”](#) atalean azaltzen den moduan, irakurketaren demokrazian eta integrazio sozialaren printzipioan oinarrituta, irakurketaren bidez pertsona hauen bizi kalitatea hobetzea lortu nahi da. Beraz, Irakurketa Errazak irakurketa,

<sup>25</sup> Iturria: [Lectura Fácil Euskadi – Irakurketa Erraza elkartearen webgunea](#)

ikus-entzunezko eta multimedia baliabideak eskaintzen ditu irakurketa eta/edo ulermen arazoak dituzten pertsonentzat.

Gure gizarteko pertsona askok ulermen arazoak dituzte, bai desgaitasun intelektuala dutelako, dislexia dutelako, immigranteak izanda estatuko hizkuntza kontrolatzen ez dutelako, eskolatze urria dutelako etab. Beraz, pertsona guztiek ezin dute fluidotasunez irakurri edo informazioa idatzi eta ondorioz pertsona ugari baztertuta gera daitezke.

Webguneko “¿Qué ofrecemos?” atalean ikus daitekeen moduan, [dokumentuak egokitzen dituzte gizarte, erakunde, enpresa eta instituzioentzat, irakurketa arazoak dituzten pertsonentzat idatzitako testuak erreparatu eta editatzen dituzte, Irakurketa Errazean idazteko ikastaroak ematen dituzte](#) eta [Irakurketa Errazeko kluba](#) sortu dute irakurketa arazoak dituzten pertsonak Irakurketa Errazean idatzitako liburu bat elkarrekin irakurtzeko eta mahai inguru bat egiteko.

Lectura Fácil Euskadi – Irakurketa Errazak egindako lanen adibide ditugu [PIKARA Magazine \(Glosario feminista en LF\)](#), Bizkaiko Foru Aldundiko [gai eta dokumentu ugari](#) desgaitasun intelektuala duten pertsonentzat egokitu dituzte eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Politika Sozialen departamentuko [laguntza ekonomikoei buruzko informazioa](#) Irakurketa Errazean idatzi dute.

2012. urtean Twitter kontu bat egin zuten ([@LF Euskadi](#)) eta bertan lehen aipatutako Irakurketa Errazaren Klubeko argazkiak, Irakurketa Errazean idatzitako dokumentuak eta eremu horretako albisteak idazten dituzte.

## **2.5 Hizkera inklusiboaren aldeko mugimendua: proposamenak eta berrikuntzak**

Otsailak 22 eta martxoak 23 bitartean Hizkera Inklusiboari buruzko euskarazko online ikastaroan parte hartu dut, EHUko Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren Arloko Errektoretza eta Berdintasunerako Zuzendaritzak antolatua.



**2.5.1 Irudia:** Ikastaroko txostenetan erabilitako logoa <sup>26</sup>

Bertan, June Fernández Casete, Danele Sarriugarte Mochales eta Señora Miltonek egindako hiru txosten landu nituen arlo honi buruz, argitaratu gabe daudenak.

<sup>26</sup> Iturria: Hizkera Inklusiboaren ikastaroko txostenak.



Komunikazio argiaren atalaren barruan, hizkera inklusiboa eragina duen kontzeptu edo ezaugarria dela iruditzen zait eta ikastaroan ikasitako zenbait kontzeptu azalduko ditut.

Alde batetik, hizkera inklusiboa hizkeran islatzen diren diskriminazio ardatzak baztertzen dituen hizkera da; hau da, hizkuntzaren erabilera sexista, arrazista, etnozentrista eta androzentrikoei aurre egiteko, hizkuntzaren erabilera justu eta integratzailea bultzatzen duen hizkera da.

Aztertutako txostenetan azaltzen den bezala, 1977. urteko Alvaro García Mesegueren *Lenguaje y discriminación sexual* liburuan jasotzen da euskarak %5eko zama sexista zuela eta euskara genero markarik gabeko hizkuntza dela. Hala ere, jendartean sexismoa eta arrazismoa errotuta dauden heinean, pentsamendu hori hizkeran islatzen da eta horri aurre egin behar zaio; bai idazterako orduan bai hitz egiteko orduan.

Ikastaro honetan aldarrikatu diren irizpideak oinarri hartuta, hizkera inklusiboan idazteko kontuan hartu beharko dira ondorengo ezaugarriak:

- Jendartearen pentsaera androzentrikoari aurre egiteko kontuz ibili behar da adjektibo eta izenen generoa markatzean.
- Hizkera eta irudien arteko konbinaketa egiterakoan funtsezkoa da emakume zein gizonen presentzia bermatzea eta aniztasuna adieraztea.
- Emakume eta gizonei trataera simetrikoa eman behar zaie eta estereotipoak saihestu.
- Hizkeran islatzen den arrazakeria baztertu behar da eta transexualitatea, homosexualitatea eta kapazitismoa errespetatzen dituen hitzak erabili behar dira.

Hau dena kontuan hartzen duen hizkeran komunikatzea funtsezkoa iruditzen zait, eta beraz, komunikazio argiaren bidez edonolako testu edo dokumentuak idaztean ezaugarri hauek buruan izatea garrantzitsua dela pentsatzen dut. Hain zuzen ere, komunikazio argian idaztean, hizkuntzaren gramatika, adjektibo eta izen egokiak erabiltzea beharrezkoa da herritar guztiei zuzentzen den testu bat egin nahi bada.

## **2.6 *Lenguaje Ciudadano* mugimenduaren ekarpenak**

*Lenguaje Ciudadano* mugimendua Hego Amerikan dagoen mugimendu bat da eta bertako estatu batzuetan aurretik azalduko *Plain Language* kontzeptuaren sinonimo gisa

erabiltzen da. Beraz, *Lenguaje Ciudadano* delakoa, hemendik aurrera Herritarren hizkera<sup>27</sup>, administrazio eta enpresek formulatutako mezuak (ahozkoak, idatziak, elektronikoak etab.) era argi eta errazean idazteari egiten dio aipamen, jendarteak modu eraginkorrean ulertzeko helburuarekin. Azken finean, herritarrentzat zuzendutako dokumentuak irakurtzean, herritarrak behar duen informazioa erraz lortzea da helburua (Valdovinos, C.M. eta beste, 2004: 6).

Modu honetan, Montolíok eta Tascónek azaldu bezala (2017-b: 23), administrazio publikoak, organo judizialak eta funtzionario asko era honetako programak martxan jartzen saiatu dira epai eta gobernu-herritarren arteko idatzizko komunikazioetarako.

Hala ere, beste estatu batzuetan Herritarren hizkera mugimenduak beste ideia bat ere barneratzen du, justizia soziala. Hau da, euren aburuz, ez da bakarrik hizkuntza edo informazioa era argian adierazi behar, oso garrantzitsua da ere egoeraren testuinguru argia izatea. Izan ere, jendarteari eman behar zaizkion ahozko zein idatzizko adierazpenak ulergarriak izan behar dira eta horretarako jendarteak bere egoera edo arazoa zertan datzan argi izan beharko du.

Zehazki, Arletis Salazar Tellesen arabera (2016), testuinguru argia izatea funtsezkoa da mezu argia helarazi nahi bada, zeren herritarrek ez badute euren egoera edo gatazkaren oinarria bere osotasunean ulertzen, ez dituzte ulertuko ondoren emango diren ahozko azalpen edo idatzizko dokumentu argiak. Hain zuzen ere, jende guztiak ez du estatuko hizkuntza ofiziala kontrolatzen edo ez du baliabiderik informazioa lortzeko eta ondorioz, baliabideak eman behar dira pertsona horiei ere informazioa garaiz eta ongi hel dakien, eta, posible bada, laguntza eman behar zaie ondo interpreta dezaten.

Ondorioz, Duránek dioenez (2012), inguruak berezko garrantzia du eta informazioa helarazteko modua bezain garrantzitsua da; biak era argian eta errazean ulertzeko modukoak izan behar dira. Testuinguru hori era egokian eraikitzeke baliabide edo tresna dugu *Legal Design* mugimendua, hurrengo puntuan sakonduko dudana.

---

<sup>27</sup> Mugimendu berria izanik, euskaraz ez da oraindik finkatu *Lenguaje Ciudadano* terminoaren baliokiderik. Agerpen bakarra identifikatu da sarean, Wikipedian duela aste gutxi argitaratutako [Hizkera argia eta erraza](#) artikuluan [Azken kontsulta: 2018/04/09]. Bertan, "Herritarren hizkera" proposatzen da euskarazko baliokide gisa. Zalantzak zalantza, aukera hori erabiltzearen alde egin da lan honetan.

## 2.7 *Legal Design* dizplinarateko ikuspegiaren ekarpenak

*Legal Design* izeneko hurbilpena *Design Thinking* mugimenduaren testuinguruan jaio zen orain ez aspaldi. *Design Thinking* metodologia bat da soluzio eta ordezeko-proposamenak identifikatu eta garatzeko prozesua azkartzen laguntzen duena. Metodologia hau [Stanford Law School](#)-en garatu da, eta bere [diseinu eskolak](#) egin ditu ekarpen esangarriak. Labur azalduta, metodologia honen proposamena da zerbitzuak garatzeko orduan urrats hauei jarraitzea:

1. Publikoa eta haien beharrak zein diren identifikatzea.
2. Helburua kokatu eta sintetizatzea.
3. *Brainstorming*: Ideiak aztertu eta egokienak zein diren erabakitzea.
4. Ideiak baliagarriak diren egiaztatzea, benetako erabiltzaileekin test bat eginda.
5. Prototipoa garatzea, testaren emaitzak kontuan hartuta.<sup>28</sup>

*Legal Design* mugimenduak metodologia hori ekarri du legegintzaren eta lege-zerbitzuen esparrura, bereziki, teknologia berriek eremu juridikoan eta herritarrekiko komunikazioan sortu dituzten erronkak jomugan hartuta. Bi dira *Legal Design* hurbilpenaren lehentasunak komunikazioaren esparruan: eraginkortasuna eta segurtasun juridikoa.

Teknologia berrien garapena etengabea den heinean, zuzenbidearen munduak ere garapen teknologiko hori behar duelako presioa sortu da eta *Legal Design* mugimendua garapen hori lortzeko tresna da. Honela, Bornek dioenez (2018: 33), mugimendu honek zuzenbidearen arloan lan egiteko modua aldatzea dakar eta abokatutza bulegoen antolaketa eta lan metodologia egokitu eta hobetzen du, bezero bakoitzaren beharretan oinarritutako proposamenak lortzea errazten baitu.

Beraz, mugimendu honek eraginkortasuna eta segurtasun juridikoa bilatzen du. Izan ere, teknologia berriak jokoan sartzean arazoak sor daitezke; teknologiak akats edo konplexutasun ugari izan ditzakeelako.<sup>29</sup> Horrek, segurtasun juridikoa gutxitzea dakar, eta horri aurre egin nahi dio *Legal Design* mugimenduak.

---

<sup>28</sup> *Design Thinking* mugimenduari buruzko bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=pXtN4y3O35M> [Azken kontsulta 2018/04/09].

<sup>29</sup> Adibide gisa, [Correoseko eragiketa batek sortutako nahasmena](#) aipatuko nuke, ordenagailuko pantailan ez baita argi gelditzen “acceptar” edo “cancelar” botoia sakatu behar duzun. Antzeko adibide gisa, Pedro Duque astronautuak [Madrilgo metroko txartelen sistema berria erabiltzeko arazoak](#) izan zituen, nahiz eta txartelean dirua izan.

*Design thinking* mugimenduari lotuta *Visual Thinking* mugimendua dago. *Visual thinking* mugimenduak, hizkera bisualari egiten dio erreferentzia. Izan ere, gai konplexuak errazago ulertzeko irudiak erabili behar direla argudiatzen duen mugimendua da. Hau da, testu bat ulertzeko arazoak sortu daitezke, baina testu hori irudi batekin osatzen bada edo testuaren ordeiz irudi ulergarri bat ezartzen bada, askotan, arazoa desagertzen da. Gainera, bisualki erakargarriagoa izaten da irudi bat testu bat baino, eta gainera hizkuntza berdina kontrolatzen ez duten pertsonak ere ulertu dezakete gaia soilik irudien bidez (Lieke, 2017).



2.7.1 Irudia: *Legal Design Lab* elkartearen logoa<sup>30</sup>

*Legal Design Lab* eremu honetan lan egiten duen elkarte bat da. Zerbitzu edo produktu legalen berrikuntza teknologikoan lan egiten du, eta beraz, diseinuan, teknologian eta zuzenbidean oinarritzen da.

Euren lanen artean ondorengoak daude:

- Zuzenbideko ikasleak eta adituak *Legal Design* mugimenduan trebatzea.
- Erraz eskuratu daitezkeen eta ulertzeko errazak diren lege-zerbitzuak garatzea.
- Berrikuntza zuzenbidearen mundura nola ekar daitekeen ikertzea.

Euren webgunean, taldeak egindako proiektuei buruz ezagutu dezakegu eta euren lan taldeari buruzko informazioa lortu dezakegu. Elkarteak Tumblr (<http://lawdesigntech.tumblr.com/>) eta Twitter ([@legaldesignlab](https://twitter.com/legaldesignlab)) kontuak dituzte euren jarduerak partekatzeko.

*Legal Design* mugimendua bultzatzen duten bestelako blogak ere badaude; besteak beste, *Open Law Lab* eta *Legal Design Jam*.

Arlo honi lotuta, 2018ko apirilaren 17 eta 18an *Legal Design Challenge* ekitaldia egin da Madrilen *Instituto de Innovación Legal* eta *Thomson Reuters*-en bidez. Ekitaldian, *Design Thinking* eta *Legal Design* mugimenduak aztertu dira eta lantegi praktikoak egin dira. Gainera, *Legal Design Challenge* deituriko konkurtsoa ere egin dute, ekitaldian parte hartzen duten pertsonak talde ezberdinetan antolatuz lege dokumentu ulergarriena egin behar zutelarik.

---

<sup>30</sup> Iturria: *Legal Design Lab*

## 2.8 Gaztelania juridiko-administratiboa eraberritzeko ekimenak Espainian

Funtsezkoa da Ulertzeko Eskubidearen egoera aztertzea gure estatuan. Aurretik aipatutako nazioarteko mugimendu eta gainerako estatuen egoera ikusi ondotik, Espainiaren kasuan zein pausu eman diren aipatuko dut.

Aurreko atalean, mundu mailako beste estatuetan Ulertzeko Eskubideari lotuta egin diren ekimenak aipatu ditugu eta estatu bakoitzean garai ezberdinetan landu duten gai bat izan dela ondorioztatu dugu. Espainiaren kasuan, Ulertzeko Eskubidearen inguruko ekimenak orain dela gutxi hasi ziren.

Montolío adituak dioen bezala (2015: 215), lehen aurrekari gisa 1990ko *Manual de estilo del lenguaje administrativo* eskuliburua dugu, hizkera administratiboari buruzko adierazpenak egiten dituen.

Ondoren, 1997an Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrak egindako [Liburu Zuria](#) aipatu behar dugu.

Bertan esaten den bezala (ikus 2.8.1 irudia), hiritarrek egindako kexen erantzuna hizkera argi eta zehatzean egingo da, eta horrela, zailtasunik gabe ulertuko dira erantzun horiek.

g) Las quejas y reclamaciones que se reciban en el Consejo General del Poder Judicial se remitirán directamente al Servicio de Inspección, que examinará su contenido y, si se trata de una simple queja o reclamación sin contenido disciplinario que sea de la competencia del Consejo, la derivará al servicio de quejas correspondiente, y, si se trata de una denuncia, propondrá a la Comisión Disciplinaria la incoación directa de expediente o bien la apertura de una información, que será tramitada por el propio servicio. La respuesta a la queja presentada por el ciudadano se hará en lenguaje claro y preciso, de forma que pueda comprenderse sin dificultad.

**2.8.1 Irudia:** Liburu Zuriaren atala <sup>31</sup>

Ondorioz, 2002ko [Hiritarrek Justiziaren aurrean dituzten eskubideen gutuna](#) argitaratu arte ezin dugu esan alor honetan Espainian ekimen garrantzitsurik egin zenik. Aurretik aipatu dugun moduan, gutun honek onartzen die herritarrei Ulertzeko Eskubidea.

Urte batzuk beranduago, 2005.urtean [Justiziaren Gardentasun Plana](#) egin zen. Plan horretan hizkera juridikoa modernizatzeko atal berezi bat jorratu zen. Bertan adierazten den bezala (ikus 2.8.2 irudia), Hiritarrek Justiziaren aurrean dituzten eskubideen gutuna oinarri hartuta, justizia ulerkorra lortzea da hizkera juridikoaren modernizazioaren helburua, eta horretarako, formula eta espresio arkaikoak baztertu behar dira, herritarrek argi azpimarratzen baitute hizkera juridikoa ulertzeko zaila dela.

<sup>31</sup> Iturria: [Gaztela-Mantxako Gobernuaren webgunea](#)

## 7. Modernización del lenguaje jurídico

El Plan de Transparencia contiene igualmente el compromiso del Gobierno de proceder al impulso y entrada en funcionamiento de la Comisión para la Modernización del Lenguaje Jurídico, creada por Orden JUS/3126/2003, de 30 de octubre, con objeto de alcanzar la aspiración de la Carta de Derechos de los Ciudadanos ante la Justicia consistente en obtener una Justicia comprensible, tanto en las comunicaciones escritas como en las vistas o comparencias y en las propias resoluciones judiciales, todo ello sin perjuicio de las exigencias que deriven de la correcta técnica jurídica. Convendrá conciliar criterios tendentes a desechar fórmulas y expresiones anacrónicas o vacías de contenido que no proporcionan ninguna información y, especialmente, prestar atención a la comprensibilidad de las citaciones que las Oficinas Judiciales dirijan a los ciudadanos, quienes en las últimas Encuestas a usuarios de la Administración de Justicia realizadas por el Consejo General del Poder Judicial todavía manifiestan, en un porcentaje que sería deseable reducir que no han entendido el lenguaje jurídico que los tribunales han empleado, permaneciendo como usuarios con más problemas con este lenguaje los de clase baja o media-baja, los usuarios de juicios de faltas y juicios penales y, más en concreto, los denunciados, los acusados, los testigos y los testigos-víctimas, por este orden.

### 2.8.2 Irudia: Justiziaren Gardentasun Planaren atala<sup>32</sup>

Hala ere, Ulertzeko Eskubideari lotutako jarduerak edo ekimen nagusia 2009. urtean eman zela esan dezakegu. Urte horretan, [Justizia Modernizatze Plan Estrategikoa](#) argitaratu zen, 2009-2012 urteetarako.

#### Actuación 4.1.2: Impulso de la Comisión para la Modernización del Lenguaje Jurídico

En la medida en que el ciudadano es el destinatario último del lenguaje jurídico, el Ministerio pretende impulsar una justicia comprensible tanto en las comunicaciones escritas como en las vistas o comparencias y en las propias resoluciones judiciales, desechando fórmulas y expresiones anacrónicas o vacías de contenido. Con este objetivo, el Ministerio reforzará la Comisión para la Modernización del Lenguaje Jurídico, creada mediante la Orden JUS/3126/2003, de 30 de octubre.

### 2.8.3 Irudia: Plan Estrategikoaren atala<sup>33</sup>

Jorge Marin Maestrek esan bezala (2015), lan honen bitartez, politika publikoaren helburu gisa ezarri zen hizkera juridikoaren argitasuna, kalitatea eta ulergarritasuna lortzea. 2.8.3 irudian irakur daitekeen moduan, plangintza honetan aurreikusitako ekimen nagusietako bat, aipatutako helburu eta jarduerak gauzatzeko batzorde bat eratzea zen. Montolók dioen bezala (2012: 25), Justizia Ministerioaren proiektu honen helburua, Ulertzeko Eskubidearen garrantzia defendatzea da.

Hau honela izanik, 2009ko abenduaren 30ean Espainiako Gobernuak, Justizia Modernizazioaren Planaren barruan egonda, Hizkera Juridikoaren Modernizatorako Batzorde bat sortu zuen. Batzorde honetako presidentea estatuko Justizia Idazkaria zen eta presidente orde bat eta eremu juridiko eta linguistiko ezberdinetako 8 bokalek ere parte hartzen zuten bertan.

Batzorde honen helburua, zuzenbideko profesionalek erabiltzen duten hizkeraren inguruko gomendioak ematea zen, eta gomendio horien helburua herritarrontzat argiago eta ulergarriagoa den hizkera erabiltzea zen.

<sup>32</sup> Iturria: [BOE](#)

<sup>33</sup> Iturria: [Espainiako Justizia Ministerioaren webgunea](#)

Batzorde honek 2011ko irailean hizkera juridikoaren modernizaziorako [txosten](#) bat argitaratu zuen, oso argigarria eta interesgarria dena gai honetan.

Txosten horretan, Ulertzeko Eskubidearen garrantzia azpimarratzen da eta hizkera juridikoaren modernizazioaren alde egiteko jardueren ahalegina azaltzen da. Ondoren, hizkeraren berrikuntza hori lortzeko gomendioak aurreikusten ditu, bai profesionali begira, bai instituzioei begira, bai komunikabideei begira.




2.8.4 Irudia: Txostenaren azala<sup>34</sup>

Lehenik, profesionalei egindako gomendioak aipatuko ditugu. Txostenean esaten da zuzenbideko estatu batean beharrezkoa dela ekintza eta arau juridikoak ulergarriak izatea. Gainera, zuzenbideko profesionalen ahozko eta idatzizko espresioaren ulergarritasun eta argitasunak segurtasun juridikoa handitzen du eta pertsonok euren eskubide eta obligazioak ezagutzea eta erabiltzen jakitea dakar.

Hau da, herritarrak etengabe erlazionatzen dira zuzenbidean adituak diren profesionalekin eta horregatik, profesional horiek euren azalpenak era argian adierazteko obligazioa dute. Batzorde honek burutu duen azterketa sakonari esker, ondorioztatu du zenbait kasutan hizkera juridikoa iluna eta arkaismoz bete egoten dela, eta horrek hizkera juridikoa ulertzea zailtzen duela.

Arazo honi aurre egiteko, zenbait gomendio egiten dira profesionali, zehazki, euren diskurtsoa, paragrafoak, perpausa, terminologia, iturrien adierazpenak eta erreferentziak idazteko orduan hobetu behar dituzten aspektuak aurreikusten dira.

*Diskurtsoari* dagokionez, kontuan hartu behar dugu diskurtso juridikoa testu mota ugarietan gauzatzen dela, bai idatzizkoetan bai ahozkoetan. Testu oro koherentea izan behar da bere edukiekiko eta kongruentea zati bakoitzarekiko.



2.8.5 Irudia: Txostenean oinarritutako eskema<sup>35</sup>

<sup>34</sup> Iturria: [Valentziako Unibertsitate Politeknikoaren webgunea](#)

<sup>35</sup> Iturria: [Valentziako Unibertsitate Politeknikoaren webgunea](#)


Horrela, dokumentu juridikoak egiterakoan arrazoinamendu logiko eta juridikoa edukitzeaz gain, argudiaketari lotuta ordena zehatz bat jarraitu beharko dute arrazoinamendu horiek.

*Paragrafoari* dagokionez, txostenak dio argi izan behar dela paragrafo bakoitzak ideia bat landu behar duela eta puntu eta berezi batekin banatzen direla. Paragrafoen bidez, testuko informazioa zatitu eta antolatu egiten da eta paragrafoak era egokian ordenatzen badira ongi egituraturako testuak lortuko dira.

Zuzenbidean adituak diren pertsonak paragrafo luzeegiak idazten dituzte eta horrek irakurlearen atenzioa galtzea dakar. Gainera, errepikapenak eta esaldi koordinatu eta mendekoak saihestu behar dira, eta horren partez, konektore egokiak erabiliz esaldi arruntagoak egin behar dira.

Bestetik, *perpausak*, komunikazio unitate bati egiten dio erreferentzia. Testu juridikoek ohikotasunez perpaus oso luze eta konplexuak erabiltzen dituzte eta beharrezkoak ez diren hitz edo formulazioak gehitzen dituzte. Honela, enuntziatu oso luzeak izaten dituzte testu juridikoak eta oso zailak izaten dira ulertzeko.

Ondorioz, zuzenbideko profesionalak esaldi laburrak egiten saiatu beharko direla dio txostenak; hau da, sintaxi arruntagoa erabili beharko dute, behar adina puntuazio marka idatzi eta egitura pasiboak, gerundioak eta arkaismoak ekiditen saiatu.



2.8.6 Irudia: Txostenean oinarritutako eskema<sup>36</sup>

Batzordearen txostenaren arabera, *terminologia*, profesionalak erabiltzen duten hizkera tekniko edo espezializatua da. Baina, herritarrek orokorrean, zuzenbideko profesionalen hizkera bereziki ulergaitza dela uste dute. Horri aurre egiteko, zuzenbideko profesionalak euren hizkera teknikoko hitz berezi horiek aipatzean (arkaismoak edo latinezko lokuzioak nagusiki), ondoren horien azalpen bat egin beharko dute. Hain zuzen ere, hizkera modernizatu nahi izanez gero, gardentasuna eta argitasuna bilatu behar dira eta profesionalen lexikoa euren hartzaileek ulertzeko modukoa izan beharko da.


<sup>36</sup> Iturria: [Valentziako Unibertsitate Politeknikoaren webgunea](http://www.valeziako.unibertsitate-politeknikoaren.webgunea)



Askotan testu juridikoek *aipamenak* era okerrean egiten dituztela aipatzen da txostenean. Testu luzeen aipamenak komatxoaren bidez idatzi beharko dira eta paragrafo ezberdin batean. Testu laburren aipamenak aldiz, komatxorik gabe eta letra etzana erabili gabe idatzi behar dira.

Gainera, testu juridikoek lege eta jurisprudenzien *erreferentzia* ugari biltzen dituzte. Baina erreferentzia horiek ez daude estandarizatuak eta kasu askotan nahasmena dakarte. Horretarako, erreferentziak nola egin behar diren jakiteko pausu batzuk jarraitu behar dira eta bestelako arloetan erabiltzen diren modeloak aplikagarri dira.

Bigarrenik, instituzioei egindako gomendioak aztertuko ditugu. Instituzioek Ulertzeko Eskubidea bermatzeko erantzukizuna dute eta horregatik instituzioen arteko elkarlana beharrezkoa da. Txostenak instituzioei egiten dizkien gomendioen artean, zuzenbidean adituak direnen formazio linguistikoa, praktika onen ezagutze publikoa, hizkera juridikoa herritarrei hurbiltzea, dokumentu juridikoen estandarizazioa, hizkera argitzeko teknologia zerbitzuak, eta instituzionalizazioari buruz hitz egiten da.




2.8.7 Irudia: Txostenean oinarritutako eskema<sup>37</sup>

Hizkera juridikoaren modernizazioak eta argitasunak duen oztopoetako bat, juristek hasierako mementotik idazteko ohitura edo modu zehatz bat barneratzen dutela da, eta urteak pasa ahala, idazkera modu hori aldatzea zaila izaten da. Beraz, *zuzenbidean adituak direnen formazio linguistikoa* funtsezkoa da eremu honetan eta hasierako mementotik (unibertsitatean sartzen direnetik) erakutsi behar zaie hizkera argi eta ulergarrian adierazten, eta gero, profesionalen lanaldi guztian zehar lagundu behar zaie.

Beste aldetik, batzordearen ustetan sustapenetan oinarritutako sistema bat sortu behar da *praktika onen ezagutze publikoari* lotuta. Hau da, periodikoki ohorezko adierazpen bat egin beharko litzateke hizkera juridikoaren argitasunean jardun duten zuzenbideko adituei.

<sup>37</sup> Iturria: [Valentziako Unibertsitate Politeknikoaren webgunea](#)

Gainera, komunikazio prozesu orok bi alderdi egotea eskatzen du, emaila eta hartzailea, eta elkar ulertzea funtsezkoa da. Hartzailea herritarra denez eta posizio ahulagoan dagoenez, instituzioek herritarrei instrumentu nahiko eman beharko dizkiete euren eskubideak ulertzeko. Izan ere, horrela lortuko litzateke *hizkera juridikoa herritarrei hurbiltzea*.



2.8.8 Irudia: Txostenean oinarritutako eskema <sup>38</sup>

*Dokumentu juridikoen estandarizazioa* ere aipatzen da gomendioen barruan. Batzordeak egindako azterketa ugarien ondorioz, formulazio asko ulergaitzak direla ikusi du; nagusiki, gestio prozesalari lotuta daudenak (zitazio eta jakinarazpenak). Horregatik formularioak hobetu beharko dira eta zitazio eta jakinarazpenen atzean, egin beharreko jardueren azalpen bat idatzi beharko da.

Honen laguntzarako *hizkera argitzeko teknologia zerbitzuak* daude eskuragarri. Zerbitzu hauen bitartez, idazkera ulergarriagoa lortu daiteke, gramatika eta esaldien egitura egokia izatea bilatzen baitute.

Azkenik, *instituzionalizazioaren* inguruan hitz egiten du batzordeak. Aurretik esan dugun moduan, bi alderdiko komunikazio baten aurrean gaude, baina batzordeak egindako azterketen bidez ikusi da zuzenbideko adituen eta hizkuntzako adituen kolaborazioa oso urria dela. Kolaborazio eta elkarlan hori lortzeko batzorde bat eratzea proposatzen da, eta horrela, txosten honetan egindako gomendioak betetzen saiatuko lirateke. Modu honetan, hizkera juridikoa modernizatzerako bidean pausu handi bat egingo litzateke aurrera.

Hirugarrenik, komunikabideetan erabiltzen den hizkerari buruzko gomendioak ematen dira, publikoari informazioa ematen dion baliabide nagusia baita. Izan ere, auzitik at dauden pertsonak, hau da, herritar orok, ulertzeko moduko informazioa eman behar dute testu juridikoek eta eremu horretan gertatzen dena modu argian azaldu behar dute.

Estatistiketan oinarrituta soilik hiritarren ¼-ak izango du erlazioa auzitegiekin baina jendarteak justiziarri buruzko informazioa jasoko du komunikabideen bidez. Beraz, komunikabideetako profesionalak erabilitako hizkera juridikoa iluna, okerra eta zehaztugabea bada, gizartean ideia nahasi eta okerrak sortzeko arriskua dago.

<sup>38</sup> Iturria: [Valentziako Unibertsitate Politeknikoaren webgunea](http://www.valencia.unibertsitate-politeknikoaren.webgunea)

Horretarako, komunikabideetako profesionalek euren hizkerara egokitu beharko dute hizkera juridikoa.

Txosten honetaz gain, Batzordeak 6 lan gehiago egin zituen:

1. [\*Estudio de campo: Políticas Públicas Comparadas\* \(Carretero, 2010\).](#)

Lan honetan Espainian arlo juridikoan egin diren lan aipagarrienak adierazten dira.

Alde batetik, euren hizkera hobetzeko instituzio publikoek egindako lanak aipatzen dira:

- Ministro Kontseiluak 1991.urtean *Directrices sobre la forma y estructura de los anteproyectos de ley* onartu zuen, bere kalitate teknikoa hobetu nahi zuelako eta segurtasun juridikoa handitzeko.



2.8.9 Irudia: Lanaren azala <sup>39</sup>

Ondoren, horren garapen eta luzapen gisa [Lege-idazkuntzari buruzko 13020 Ebazpena](#) eman zen 2005eko uztailaren 28an eta aurreko ebazpena derogatu zuen.

- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak hizkera juridikoari buruzko bi lan egin zituen 1997.urtean eta 2000.urtean.
- Estatuko Kontseiluaren eremuan bi memoria dira aipagarri, 1992.urtekoa eta 1993.urtekoa, bertan hizkera juridikoa argia erabiltzearen beharra azpimarratzen da.
- Presidentetzako Ministerioaren bidez, RAE eta Gobernuoko presidente ordezkartzaren artean kolaborazio-hitzarmena sinatu zuten 2006.urtean, legeetako idazkera hobetzeko nahiarekin.

Beste aldetik, AAEEetako instituzio publiko eta pribatuek egindako ekarpenak adierazten dira. EAE eta Nafarroako egoerak aipatzen dira, baina beranduago egingo dut euskararen kasuari aipamen. Ondoren, mundu mailako beste estatu askoren egoerak eta lanak aipatzen dira; aurretik lan honetan aipatutakoak. Gero, nazioarteko instituzioen aipamenak egiten dira, aurretik ere aipatuak eta azkenik, lortutako informazio guztiaren ondorioak, estatuz estatu adierazita.

---

<sup>39</sup> Iturria: [Estudio de campo: Políticas Públicas Comparadas](#).

## 2. *Estudio de campo: Lenguaje de las normas (Gutiérrez, 2010).*



Lan honen sarreran adierazten den moduan, hizkera juridikoak, beste eremuetako hizkerak bezala, zenbait berezitasun ditu. Hau da, adituek lexiko, biraketa eta errekurso linguistiko propioak erabiltzen dituzte, eta euren eremuko beste adituekin erraz komunikatzeko baliagarriak dira. Legegileak inkontzienteki aurretik idatzitako legeen idazteko modua bereganatzen du eta aurretik erabilitako ereduak eta estrukturak errepikatzen ditu.

2.8.10 Irudia: Lanaren azala<sup>40</sup>

Hala ere, aditu hauek herritarrengana zuzendu behar dira eta herritarrek euren komunikazioak ulertu behar dituzte. Baina lege, epai, zitazio eta bestelakoak herritarrei zuzenduta egon arren, herritarrek ulertzen ez duten hizkeran daude idatzita. Horrek eragiten du bertan parte-hartzeko beharra, eta adituek erabiltzen duten hizkera herritarrei hurbiltzen joan behar da.

Puntu askori buruzko gomendioak ematen dira lan honetan, zehazki, paragrafo, puntuazio, erredakzio modu, gerundio, esaldi pasibo, koordinazio, perpaus erlatibo, preposizio, erreferentzia, atzerriko izen eta latinismo, maiuskula eta minuskula, hitz elkartu eta banatuak eta numerazioei buruzkoak. Gainera, gomendioak emateaz gain testu juridikoak aztertu dituzte eta euren ulergarritasuna balioetsi dute. Hau da, gai bakoitzari buruzko gomendioak eman ondoren, testu zehatzetan zuzendu beharreko akatsak adierazi dituzte.

## 3. *Estudio de campo: Lenguaje escrito (Montolío, 2010).*

Lan hau diskurtso juridikoan zentratzen da; hau da, forma linguistikoak aztertzen dira baina diskurtsoaren ikuspegitik. Nagusiki epaien idazketa aztertu dute, Justizia Ministerioaren eskaeran oinarrituta. Hain zuzen ere, epaia da prozesu judizialeko dokumentu garrantzitsuenetakoa eta testu konplexuak eta osoak izaten dira, bestelako testu juridikoetan aurreikusi ohi diren arazo gehienak epaietan daudelako.



2.8.11 Irudia: Lanaren azala<sup>41</sup>

<sup>40</sup> Iturria: *Estudio de campo: Lenguaje de las normas*

<sup>41</sup> Iturria: *Estudio de campo: Lenguaje escrito*

Lanak fase ezberdinak izan ditu:

1. Lan taldeko kide bakoitzak 5 epai aztertu zituen eta bertako arazo linguistikoak identifikatu zituen.
2. Denon artean komentatu zituzten aurkitutako arazo linguistikoak eta analisi-eredu bat sortu zuten arazoak identifikatzeko.
3. Analisi-eredu hori egin ondotik, eredu egokia ote zen ikusteko 16 epai berri aztertu zituzten hura erabilita.
4. Behin hori eginda, kide bakoitzak beste 10 epai berri aztertu zituen analisirako baliabideak erabilita. Gero, kide bakoitzak arazo zehatz bat aztertu zuen eta bere ezaugarriak zehaztu zituen, berak eta beste kideek landutako epaietan aurkitutako arazoak adibide gisa erabiliz.
5. Kide bakoitzaren lana beste kideei azaldu eta dena mahai gainean izanda, txosten hau egin zen.

Lan honetan ondorengo arazoak aztertzen dira:

- Unitate testualak: paragrafoak, anakolutoak, paragrafoen arteko trantsiziorako mekanismoak.
- Deskripzioa eta narrazioa.
- Argudiaketa.
- Enumerazioa.
- Espresio anaforikoak.
- Puntuazio markak.
- Mendekotasuna.
- Beste aspektu sintaktikoak.
- Lexiko arazoa.
- Arauen arazoak.
- Epaiak ez diren beste dokumentuen azterketa.

Ondorioz, lan honetan Espainiako dokumentu juridikoen erredakzioan sortzen diren arazo nagusiak zein diren esaten da, oinarri gisa epaien azterketa izanda. Baina ez da soilik arazoen zerrenda jasotzen, ordezkoko bertsioak, gomendioak eta praktika onen adibideak ere jasotzen dira.

#### 4. Estudio de campo: Lenguaje jurídico en los medios (Peral, 2010).



2.8.12 Irudia: Lanaren azala <sup>42</sup>

Lan honetan, komunikabideek erabiltzen duten hizkera juridikoa aztertzen da. Zehazki jakin nahi izan da ea komunikabideek prozesu judizial errealak transmititzean era egokian adierazi dituzten. Hain zuzen ere, hizkera juridikoa modernizatzeko jarduten ari den heinean, beharrezkoa da modernizazio hori komunikabideetara ere pasatzea, komunikabideak baitira bitartekari ekintza judizial eta iritzi publikoaren artean.

Gainera, epaitegi eta auzitegiekin kontaktua duten herritarrak oso gutxi dira eta ondorioz, jendartearen gehienak justiziarri buruz jasotzen duen informazioa komunikabideen bidez lortzen du. Horrela, hizkera juridikoaren erabilera txarrak herritarrengan ideia okerrak edo nahasgarriak sortu ditzake.

Lan hau egiteko bi baliabide iturri erabili dituzte; alde batetik, 2010eko uztailaren 10etik 16ra estatu zein probintzietako egunkariak jasotako albisteak aztertu dituzte, eta beste aldetik, komunikabideetan eragin handia izan duten zenbait kasu aztertu dira (gizon baten atxiloteta 3 urteko ume bat hiltzeagatik Kanariar uharteetan, genero indarkeriako bi kasu eta neska baten desagertzea). Ondorengo atalak ditu lanak:

##### 1. Ausazko kasuak:

- 1.1. Espresio edo termino juridiko nahasgarriak edo ulergaitzak.
- 1.2. Prozesuen deskribapen okerra.
- 1.3. Justizia Administrazioako organoen edo euren funtzioen deskribapen okerra.
- 1.4. Ustezko delitugileak, ustezko delituak. Inputatu, akusatu, susmagarri, atxilotu etab. kontzeptuen nahasketa.
- 1.5. Irudien hizkera.
- 1.6. Generoko terminologia.

##### 2. Kasu zehatzak:

- 2.1. Diego P.-ren kasua.
- 2.2. Genero indarkeria.
- 2.3. A.-ren kasua.

<sup>42</sup> Iturria: Estudio de campo: Lenguaje jurídico en los medios.

2.4. Auzitegi Goreneko Zigor Salaren 3/99 epaia.

2.5. Latinezko aforismoak.

5. [Estudio de campo: Lenguaje oral \(Briz, 2010\).](#)

Justizia Ministerioaren Gardentasun Planaren helburuetako bat eremu juridikoko adituen hizkera herritarrei hurbiltzea da. Hori oinarritzat izanda, lan honetan eremu juridikoko adituen ahozko hizkera aztertu da eta herritarrek hizkera hori ulertzeko izan ditzaketen arazoak identifikatu dira.



2.8.13 Irudia: Lanaren azala <sup>43</sup>

Ekaina, uztaila eta irailean 14 ikertzaile egon ziren Valentzia, Madril eta Ciudad Real-eko epaitegietan, bertako ekintza judizialen ahozko komunikazioak aztertzeko. Honela, bista eta antzeko agerraldietara joan ziren eta agerraldi horien grabaketak eskuratzeko aukera izan zuten.

Material guzti hori (40 ordu bideoetan eta audioetan) eta abokatu bulegoek bidalitako dokumentuak ikertzaileen artean banatu ziren azterketa sakon bat egiteko. Ikertzaileek fitxa tekniko bat egin zuten kasuari lotuta (datu orokorrekin: sala, organo judiziala, data, parte-hartzaileak, egitura, adituen argudiaketen iruzkinak etab.) eta gero beste fitxa bat egin zuten arazo linguistikoak identifikatuz (lexiko, morfologia, tonuari lotutako arazoak eta horien ordezkoko adierazpenak etab.).

Ondorengo gaiak aztertzen dira lanean:

- Analisia: Maila fonikoa, maila lexiko-semantikoa eta maila morfosintaktikoa.
- Maila pragmatikoa / egoerakoa: ohiko akatsak.

Beraz, kasu zehatzak aztertu dituzte lan honetan eta okerrak zuzentzeko gomendio ugari ematen dituzte.

---

<sup>43</sup> Iturria: [Estudio de campo: Lenguaje oral](#)

## 6. Estudio de campo: Plantillas procesales (Borrego, 2010).



2.8.14 Irudia: Lanaren azala <sup>44</sup>

Lan honetan, Administrazio Zentralaren 103 txantilo eta EAEko Administrazioaren 35 txantilo aztertu dituzte.

Testu hauek landu dituztenean ohartu dira zenbait ezaugarri linguistiko egokitu edo modernizatu behar direla, bai estiloa okerra delako bai ulertzeko zailtasunak egon daitezkeelako.

Horregatik, arazo linguistikoen azterketa egiten da lehendabizi. Bertan ulertzeko zailtasunak dakartzaten zenbait egitura edo adierazpen identifikatzen dira.

Gainera, benetako testuen zatiak erakusten dituzte eta bertan dauden akatsak zein diren azaldu ondoren, testu bera era egokian idatzita jasotzen dute. Ondoren, arau akademikoak jarraitzen ez dituzten zenbait egitura adierazten dira; besteak beste, azentu-marka, puntuazio, gerundio eta preposizioen erabilera okerren adibideak biltzen dira. Hurrengo atalean bokabularioaren azterketa egiten da. Bertan, aztertutako txantiloietan erabiltzen diren teknizismoak lantzen dira eta euren ulergarritasun mailaren arabera sailkatzen dira.

Hasieran aipatu bezala, EAEko dokumentuak aztertu dira lan honetan, eta horregatik, “Anexo 1” atalean EAEko txantilo hauen azterketa zehatza egiten da. Atal horretan esaten da, oro har, dokumentu horiek Administrazio Zentralaren txantiloak baina egokiagoak direla, nahiz eta hobetu beharreko akats ugari dituzten eta zuzenketak proposatzen dituzte.

Jorge Marín Maestrek dioen bezala (2015), gomendio hauek guztiak eman arren, 2011. urteko gobernu aldaketak eragin nabarmena izan zuen eremu honetan. Izan ere, Justizia Ministerioko Idazkari Judizialak 2012-2015 urtetarako emandako [Akzioen Plana](#) eman zuen eta bertan ez zen aipamen garrantzitsurik egin hizkera juridikoaren berritze edo modernizazioaren inguruan.



2.8.15 Irudia: Akzioen Planaren azala <sup>45</sup>

<sup>44</sup> Iturria: [Estudio de campo: Plantillas procesales](#)

<sup>45</sup> Iturria: [Espainiako Justizia Ministerioaren webgunea](#)



Haatik, 2014ko azaroan [Real Academia Española](#) (RAE) eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak hitzarmen bat sinatu zuten gaztelaniazko hizkera juridikoko hiztegi bat eta justiziar buruzko estilo liburu bat egiteko. Izan ere, 2011.urtean [lankidetzarako hitzarmen-marko](#) bat sinatu zen hizkera juridikoaren argitasuna bultzatzeko RAE, [Justizia Ministerioa](#), [Estatuko Fiskaltza Orokorra](#), [RAJL](#), [Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Orokorra](#), [Espainiako Prokuradoreen Kontseilu Orokorra](#) eta Espainiako Zuzenbideko Fakultateen Dekanoen Konferentziaren artean.

Hori oinarri izanda, 2016. urteko apirilaren 27an [Diccionario del español jurídico](#) argitaratu zen eta 2017ko urtarrilaren 26tik aurrera interneten dohainik dago eskuragarri. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak RAErekin batera egin zuen hiztegi hau hizkera juridikoaren argitasun eta segurtasun arazoei aurre egiteko.



2.8.16 Irudia: Hiztegiaren azala <sup>46</sup>

Beste hiztegi juridikoekiko berrikuntza nabarmena dakar hiztegi honek, gaztelaniako beste hiztegiak egiteko erabiltzen diren metodologia eta irizpideak jarraitzen baititu. Beraz, hiztegi espezializatua da baina definizio argiak eta laburrak ematen ditu eta kontzeptuen erabilera edo jatorria ere gehitzen du (lege, jurisprudenzia eta doktrinan oinarrituta).<sup>47</sup>



2.8.17 Irudia: Online hiztegiaren irudia<sup>48</sup>

<sup>46</sup> Iturria: [RAE](#)

<sup>47</sup> Informazio gehiagorako: <http://www.rae.es/noticias/la-rae-y-el-cgjp-presentan-el-diccionario-del-espanol-juridico> [Azken kontsulta 2018/04/09]

<sup>48</sup> Iturria: [RAE](#)



**2.8.18 Irudia:**  
Liburuaren azala<sup>49</sup>

Behin hiztegia eginda, hurrengo proiektua “Libro de estilo de la Justicia” izan zen eta 2017ko urtarrilaren 25ean argitaratu zen. Estilo liburu honen helburua, zuzenbidea sortu eta aplikatzen den eremu guztietan hizkeraren erabilera egokia egitea da.

Ondorioz, operadore juridiko guztiek erabil dezaketen estilo liburu da eta idatzitako hizkera juridikoaren homogeneizazioa ere ahalbidetzen da.

Besteak beste, paragrafoen antolaketa, generoaren erabilera, zenbakiak eta latinezko lokuzioak era egokian erabiltzeko gomendioak ematen dira.<sup>50</sup>

Bi lan hauek argitaratu ondotik, hurrengo pausua *Diccionario panhispánico del español jurídico* egitea izan zen eta 2017ko abenduaren 15ean argitaratu zen. Kasu honetan, Amerika eta Espainiako jurista eta filologo ezberdinek parte hartu zuten eta Hispano Amerikako estatueta hizkera juridikoaren kontzeptu nagusien hiztegia eratu zuten.



**2.8.19 Irudia:**  
Hiztegiaren azala<sup>51</sup>

Aurretik aipatutako gaztelaniazko hizkera juridikoaren hiztegia hartu zen oinarri gisa eta hura zuzendu ondotik, Hispano Amerikako estatueta kontzeptu eta lexiko esanguratsuenak gehitu ziren. Oraindik hiztegi hau ez dago interneten eskuragarri.<sup>52</sup>

## 2.9 Euskara juridiko-administratiboa eraberritzeko ekimenak

Euskararen erabilerari lotuta alor honetan egindako ekimenak pixkanaka egin diren ekimenak izan dira, euskara ez baita oso hizkuntza erabilia mundu mailan. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoak baliabide asko jarri ditu arlo honetan eta euskararen erabilera bultzatu nahian ekimen bat baina gehiago jarri ditu abian.

<sup>49</sup> Iturria: [RAE](#)

<sup>50</sup> Informazio gehiagorako: <http://www.rae.es/obras-academicas/obras-linguisticas/libro-de-estilo-de-la-justicia> [Azken kontsulta 2018/04/09]

<sup>51</sup> Iturria: [RAE](#)

<sup>52</sup> Informazio gehiagorako: <http://www.rae.es/obras-academicas/diccionarios/diccionario-panhispánico-del-español-jurídico> [Azken kontsulta 2018/04/09]



2.9.1 Irudia: Liburuaren azala<sup>53</sup>

Hasteko, 1994.urtean IVAPek *Hizkera argiaren bidetik* liburua argitaratu zuen. Bertan adierazten da administrazio hizkera iluna eta gardentasun gabekoa dela eta zenbait erakunde publikok herritarrei helarazten dizkieten mezu, ohar eta erabakiak ulergaitzak edo ulertezinak direla eta horren ondorioz, herritarrak babes gabeko egoeran utzi direla administrazio ahalmentsuaren aurrean.

Hori oinarri izanda, liburuko hitzaurrean adierazten da administrazio hizkera erraztea funtsezko betebeharra dela eta 1989 eta 1994.urteetako Arartekoaren txostenetan arazo honi konponbidea bilatu behar dela azpimarratu zen. Gainera, HAEEak administrazio hizkera errazteko helburuarekin *Administrazioa Euskaraz* aldizkaria eta, *Udal-espeditenteak* eta *Administrazio idazkiak* izenburuko argitalpenak egin ditu.

Aurrekari hauek kontuan hartuta, *Hizkera argiaren bidetik* liburuaren nahia administrazioetan lan egiten duten langile euskaldunei euskarazko baliabideak proposatzea da; era horretan, langileek euren egunerokotasuneko lana hobeto egingo dutelakoan.

Hau da, langile euskaldunen eguneroko lanean sortzen zaizkien arazoei (itzulpengintzan, sorkuntzan, terminologian, idazkien diseinuan eta beste arloetan) aurre egiteko lagungarri izan daitezkeen tresnak eskaini nahi dira. Horretarako, liburuan administrazio hizkerari buruzko sarrera bat ematen da eta ondoren, idatzizko komunikazioa eta era argian idazteko bideak adierazten dira. Hurrengo atalean diseinua, antolaketa eta berrikusketari buruzko gomendioak ematen dira. Gero, administrazioko itzulpenak nola egin behar diren aipatzen da eta administrazioko idazkiei buruzko aipamenak egiten dira. Azkenik, erabili beharreko hiztegiari buruzko adierazpenak jasotzen dira.

Ondoren, 1996.urtean IVAPen lehen estilo liburua argitaratu zen. Izan ere, IVAPeko langile bakoitzak bere modura egiten zituen idazkiak eta ondorioz, ez zegoen inolako batasunik IVAPek argitaratutako dokumentuetan. Arazo horri aurre egiteko, eguneroko eginkizunetako ekarpen baliagarriak egin ziren estilo liburuan; hau da, idazteko gomendioak eskaini zituzten eta diseinua batzeko bideak zabaldu. Estilo liburu horren

---

<sup>53</sup> Iturria: [Euskonews](#)

bitartez IVAPeko idazkiek estilo eta itxura bateratua izatea lortu zuten (Arakama, J.M. eta beste, 2005: 7).

Hala ere, euskarazko administrazio-testuetan zenbait aldaketa egin behar zirela pentsatzen zuen IVAPek eta ikastaroak eman zituzten arlo horretan.

Ondoren, euskararen normalizazio eta modernizazioari ekarpen bat egiteko helburuarekin, HAEEak *Argiro idazteko proposamenak eta ariketak* liburua (*Argiro* bezala ezagutua) argitaratu zuen 1997.urtean.

Liburuko aitzin solasean aipatzen den bezala, euskaraz lan egiten duten euskal langileei beren jardunean behar dituzten tresnak eskuratu behar zaizkie eta liburu hau horretarako erabilgarria izan zitekeelakoan egin zen.



**2.9.2 Irudia:**  
Liburuaren azala <sup>54</sup>

Liburu honek sei atal ditu:

- Lehenbiziko atalean, komunikazioa aztertzen da: kontzeptua, nola eta norekin komunikatzeko irizpideak, edukia nola aukeratu eta nola kontatu edo deskribatzeko irizpideak.
- Bigarren atalean, testugintza lantzen da: lerroaldegintza, kohesioa, konexioa eta modalizazioa.
- Hirugarren atalean gramatika aztertzen da, eta bertan sortzen diren arazo nagusienei erantzuten zaie.
- Laugarren atalean, estiloa aztertzen da: perifrasiak, nominalizazioa, egitura pasiboak, ezezko esaldiak, aposizioak, atzerakarga, lexikoa, gerundioa eta puntuazioa.
- Bosgarren atalean administrazio testuak euskaratzeko aholkuak ematen dira.
- Seigarren atalean, administrazio-idazkiei buruzko azalpenak ematen dira; zehazki, ziurtagiria, eskabidea, gutuna, ofizioa, bilera-deia, akta, iragarkia eta txostena.

---

<sup>54</sup> Iturria: [Hizkuntza Baliabideak Sarean](#)

Hala ere, liburuko lan-taldearen sarreran aipatzen den bezala, liburu hau ez da liburu teoriko bat, praktikoa baizik. Izan ere, aipatutako atal guztietan aipamen teorikoak daude baina adibideak eta ariketak dira nagusi, eta bukaeran ariketen erantzunak daude.




2.9.3 Irudia: Liburuaren azala <sup>55</sup>

Ondoren, 2000.urtean [Zalantza-dantza](#) liburua argitaratu zuen IVAPek. Kasu honetan, liburuko sarreran aipatzen den bezala, ortografia, hiztegia, morfologia eta joskera aztertzen da eta euskaraz idaztean eremu horietako zalantzak argitzeko helburua du liburuak. Argibide guztiak hurrenkera alfabetikoa jaso dira.

Era berean, 1997.urtean sortu zen *Duda-muda* (gaur egun [Dudanet](#) deritzona) kontsulta-zerbitzua. 1997-2003 urte bitartean 4.000 galderei erantzun zitzairen eta erantzun horiek guztiak interneten soilik ez egoteko helburuarekin, [Galdezka](#) liburua argitaratu zen erantzun horiek bilduta. Beraz, liburuko hitzaurrean azaltzen den bezala, egunerokotasunean sortzen diren euskarazko zalantzei aurre egitea du helburu.



2.9.4 Irudia: Liburuaren azala <sup>56</sup>



2.9.5 Irudia: Liburuaren azala <sup>57</sup>

Aurretik aipatutako 1996ko IVAPen estilo-liburua oinarri hartuta eta ordenagailuen komunikazioak aurrera egin heinean, gomendio berriak ematea beharrezkoa zela aurreikusi zuen IVAPek. Horretarako, [estilo-liburu](#) berri bat idatzi zuen 2005.urtean eta bertan aipatzen den moduan, langileak behar dituzten aholku, eredu eta argibide asko modu arin eta ulergarrian azaltzen dira.

Zazpi ataletan banatzen da estilo-liburua:

- Idazketa-prozesua: Testu bat idazterakoan, hasieratik bukaera arte egitura egokia izateko gomendioak aipatzen dira.
- Gramatika: Gramatika arazo edo zalantza ugari argitzen dira.

<sup>55</sup> Iturria: [Hizkuntza Baliabideak Sarean](#)

<sup>56</sup> Iturria: [Hizkuntza Baliabideak Sarean](#)

<sup>57</sup> Iturria: [Hizkuntza Baliabideak Sarean](#)

- Estiloa: Testuak euskara jatorrez idatzi eta ulerterrazak izateko gomendioak ematen dira.
- Diseinua: Testua erakargarria izateko bete behar dituen ezaugarriak aipatzen dira.
- Zuzenketa: Testua berrikustearen garrantzia azpimarratzen da.
- Idazkiak: IVAPeko idazkien ezaugarriak azaltzen dira.
- Osagarriak: IVAPeko langileentzat lagungarri izan daitezkeen informazioa biltzen da bertan.



2.9.6 Irudia: 100. aldizkariaren azala<sup>58</sup>

Guzti honi lotuta, IVAPek [Administrazioa Euskaraz](#) aldizkaria argitaratu izan du 1993.urtetik hiruhilero. Aldizkariaren helburua, administrazioan euskararen erabilera egokia sustatzea da eta gai ezberdinetako testuak irakur ditzakegu bertan, bai eta era egokian idazteko zenbait ariketa.

Azken aldizkaria 2018ko apirilean argitaratu zen eta internet bidez deskargatu ditzakegu [aldizkari guztiak](#) eta bertako [artikulu zehatzak](#) ere bilatu ditzakegu.

1998ko urriko aldizkarian dagoeneko *Hizkera hiperrargiaz* artikulua idatzi zuen Antton Elosegik, administrazioiko hizkeraren egoera aztertuz.

Hizkera argian idazteko gomendioez gain, ez dugu ahaztu behar idazkiak estandarizatzeko lanak ere egin direla. 2009.urtean, Aitor Gorostizak [Administrazioiko Idazkiak Estandarizatzeko Teknikak](#) lana egin zuen eta bertan esaten den bezala, administrazio idazkiak estandarizatu eta berritu nahi dira. Hau da, antzekoak diren gauzak eredu baten arabera egokitu edo doitu nahi dira, eta zaharkituta dagoena baztertu nahi da egungo garai eta egoerara egokitzeko. Izan ere, azken urteotan administrazioiko testuen kalitatea hobetu dela adierazten den arren, oraindik egiteko asko dagoela azpimarratu du idazleak.

Estandarizazioaren bidez, beharrezkoa dena bakarrik idaztea lortu nahi da, eragile desberdinek modu bat eta berbera izatea lortuko da eta okerrak saihestuko dira, hizkera zehatz eta argia erabiliz. Hain zuzen, testuen eginkizuna eta helburua komunikatzea da, eta egoki komunikatzeko beharrezko dira terminoak zehatzak izatea eta esapideak argia.

<sup>58</sup> Iturria: [Administrazioa Euskaraz](#) aldizkaria

Lanean zenbait aholku ere aurreikusten dira estandarizazioari lotuta, besteak beste:

- Hitz laburrak eta ezagunak erabili.
- Esaldiak ez puztu beharrik gabe, betelanak ez baitu dotoreziarik erakusten.
- Hizkera konkretua erabili abstraktuaren ordez.
- Esaldi laburrak erabili, hau da, ez sartu perpaus gehiegi esaldi berean.
- Diseinua argia eta funtzionala izan behar da.
- Zerbait ulertzen zaila bada, adibideak eman.
- Egokitu hizkera gaiari.

Bide honetatik, estandarizaziorako lan asko egin dituzte elkarte ezberdinek:

- [UZEI](#): Epaitegietan erabiltzeko formulario estandarizatuak daude.
- [Justizia.net](#): Abokatuentzako dokumentu estandarizatuak daude.
- [LanHitz](#): Enpresetarako dokumentu estandarizatuak daude.
- [EUDEL](#): Udal administrazioarako dokumentu eta eredu estandarizatuak daude.
- [IVAP](#): Aldizkarietako dokumentu estandarizatuak daude.
- [ELET](#): Administrazioarako dokumentu estandarizatuak daude.<sup>59</sup>

IVAPen modu honetako lan gehiago egin dira eta bere [webgunean](#) irakurri ditzakegu. Webguneko “argitalpenen doako bertsio digitala” atalean, IVAPek egin dituen lanak eskuratu ditzakegu. Bertan, aurretik aipatutako IVAPen liburu gehienak daude bai eta bestelako artikulu zein liburuak, komunikazio elektronikoari (beranduago aztertuko dudana), *Eskabidea* administrazio idazkiari<sup>60</sup> edo testu juridikoen kalitateari loturikoak.

Argitaratu den azken lana 2017. urtekoa da eta [20 consejos para mejorar la calidad de los textos jurídicos](#) du izenburua.

Liburuan irakur daitekeen moduan, Eusko Jaurlaritzako Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak IVAPi eskatu zion idazketa-jarraibide batzuk ematea,

---

<sup>59</sup> ELETen sartzeko arazorik balego, jo IVAPeko webgunera eta bertako ataletik sartu: [http://www.ivap.euskadi.eus/r61-vizo03ed/eu/contenidos/informacion/euskalduntze\\_argitalpenak/eu\\_hizkera/elet.html](http://www.ivap.euskadi.eus/r61-vizo03ed/eu/contenidos/informacion/euskalduntze_argitalpenak/eu_hizkera/elet.html)

<sup>60</sup> Testu hau euskaraz zein gaztelaniaz dago eskuragarri: [https://www.euskadi.eus/r61-vedargeu/eu/contenidos/informacion/euskalduntze\\_argit/eu\\_def/index.shtml](https://www.euskadi.eus/r61-vedargeu/eu/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/index.shtml)

zuzendaritzako arlo juridikoko langileei testu argi eta kalitatezkoak idazten laguntzeko. Helburu horrekin egin zen liburu hau 2017an.

Liburu honetan, testu juridiko argiagoen idazketan eragiten duten elementuak azaltzen dira. Hau da, diskurtso juridikoko zenbait ezaugarritan arreta jarrita, testu argiagoak idatz daitezke, genero honetako idatzien berezko zehaztasunean eragin gabe.

Behin liburu horiek guztiak adierazita, praktikan EAEn Ulertzeko Eskubidearen aplikazioa nola garatu den aipatuko dugu.

[Euskadiko Justiziaren Administrazioaren webgunean](#) informazio asko dago hizkera juridikoari buruz; besteak beste, termino juridikoen azalpenak jasotzen dira eta zalantzak argitzen saiatzen dira.

Justiziaren aurreko Herritarren Eskubideen Gutunaren aplikazioaren aurrean Eusko Jaurlaritzak ekintza ezberdinak egiten ditu, hala nola (2017):

- Herritarrentzako arreta zerbitzu bulegoen eraketa. Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan 16 daude:

Barakaldo	Tolosa	Bergara
Bilbao (2)	Irún	Eibar
San Sebastián (2)	Gernika	Amurrio
Vitoria	Getxo	Balmaseda
Durango	Azpeitia	

2.9.7 Irudia: Herritarrentzako arreta bulegoak<sup>61</sup>

- Herritarrentzat zuzendutako komunikazioen erredakzio argi eta zuzena egitea, eta kontzeptu konplexuen erabilerak baztertzea.
- Herritarrei zerbitzua hizkuntza ofizialetan ematea. Justizia Sailak urtero euskaraz ikasteko ikastaroak antolatzen ditu organo judizialen kide guztientzako, eta gainera bi hizkuntzetan eraturako dokumentuak zabaltzen ditu. Euskararen erabileraren inguruko ekimenak alderdi judizial guztietara hedatu dira eta epaitegi guztietan ere ezarri da.
- Bulego judizialean lanean dauden langileen postuak identifikatzeko kartelak, hizkuntza ezberdinetan idatzi dira.
- Alderdi judizial guztietan, Justizia Sailak bermatuta, hizkuntza ofizialen eta atzerritarren itzultzaileak egongo dira.
- [Eusko Jaurlaritzaren Gardentasun eta Herritarren Parte-hartze arloaren bidez](#), Gobernantzaren eta Berrikuntza Publikoaren Plan Estrategikoan (PEGIP 2020)

<sup>61</sup> Iturria: [Euskadiko Justizia Ministerioa](#)



egonda, administrazioan gardentasuna, parte-hartzea eta kolaborazioa sustatzen da; “Administrazio ireki” baten alde lan eginez.

Baina adierazitako ekintzak burutzeaz gain, beste ekimen batzuk ere aurrera eramaten ari da Euskal Gobernuak memento honetan. Azken urte hauetan, martxan jarri du euskadi.eus [webgunean](#) Irakurketa Erraza deituriko proiektu bat. Beranduago azalduko dugu era sakonago batean zertan datzan Irakurketa Erraza proiektua.

Azkenik, Nafarroako egoerari egin nahiko nioke aipamen. *Departamento de Presidencia, Justicia e Interiorak* dio AAEE ezberdinen arteko teknologia berrien koordinazioan ari dela lanean. Hau kontuan hartuta eta hizkeraren modernizazioa garrantzitsua eta gaurkotasuna duen gaia izanda, estatu-mailan landu behar den gai bat dela uste dute. Hau da, jarraibideak eman behar dira AAEE guztietan terminologia juridikoa homogeneizatzeko eta batzeko. Hori dela eta, Administrazio Foralaren barruan ez dago ekimenik hizkera juridikoa modernizatzeko, eta ez dago ikerketa-talderik eremu honetan (Carretero, 2010: 32).

## **2.10 Beste ekimen batzuk**

Ikusten denez, mugimendu askok egiten dute lan hizkera juridiko argia lortzeko, eta eskuliburu zein artikulua ugari idatzi dituzte. Baina aipatutako mugimendu hauek ez dira eremu honetan lan egiten duten bakarrak. Izan ere, Twitter kontuaren bidez, modu ez hain formalean jarduten duten zenbait eragile identifikatu ditut, nagusiki, eremu pribatuan lan egiten duten profesional zein enpresak. Hona hemen erreferentzia interesgarri batzuk:

- [Prodigioso Volcán](#): Elkarte honetan, enpresa eta komunikabideei laguntzen diete eraldaketa digitala egiten. Aholkularitza lanak ere egiten dituzte. Komunikazio argiaren aldeko apustua egin dute eta euren argitaratzen dituzten dokumentuek hizkera argia erabiltzen dute. GAL honetan zehar elkarte honek argitaratutako bi dokumenturen aipamenak jaso ditut:
  - Montolío Durán, Estrella, eta Tascón Ruiz, Mario (2017). *Comunicación Clara, Guía Práctica*.
  - Montolío, Estrella eta Tascón, Mario (2017). *Comunicación Clara: Una herramienta moderna y eficaz para que la administración y las empresas dialoguen con los ciudadanos de una forma clara y transparente*.

- [Lenguaje Administrativo bloga](#): Javier Badía kazetariak egindako blog honetan, administrazioaren hizkera modernizatzeko gomendioak ematen dira. Horretarako, artikulu ugari idatzi ditu hizkera administratiboa, hizkera administratiboaren modernizazioa, hizkera argia, hizkera ez-sexista eta lotura duten bestelako gaiei buruz.
- [Traducción Jurídica](#): Ruth Gámezek eta Fernando Cuñadok egindako webgunea da. Zuzenbidean lizentziatuak dira eta ingeleseko itzultzaile espezialistak dira. Zenbait liburu argitaratu dituzte ingelesezko kontzeptu juridikoen itzulpenak nola egin erakusteko eta ikastaroak ere eskaintzen dituzte. Gainera, web-orrian bertan blog bat dute eta itzulpen egokiak egiteko gomendioak ematen dituzte.
- [Visual Contracts bloga](#): Lieke Beelen-ek egindako blog honetan, zerbitzuen diseinua nola egin eta *Legal Design*-i buruzko proiektuen azalpenak ematen ditu. Blogaren helburua, bere lanak ezagutaraztea eta *Design Thinking* mugimenduan sinesten duten profesionalak elkartzea da.
- [Estilo Llano bloga](#): Pedro Jimeno Capilla irakasleak egindako blog honetan, hizkera argia erabiltzearen beharra azpimarratzeko idatzi dituen artikulu eta liburuen aipamenak daude. Gainera, gramatika eta lexikoko zalantzak argitzeko atalak ditu. Bere Twitter kontuan ere ([@briasero](#)) ia egunero igotzen ditu egunkarrietan irakurritako akats ortografikoen argazkiak eta akats horiek zuzentzeko gomendioak.

### **3. Hizkera Juridiko Argia proiektua: Ulertzeko Eskubideari buruzko informazioa biltzeko eta zabaltzeko webgune irekia**

Aurreko atalean ikusi denez ugariak dira Ulertzeko Eskubidearen inguruan abian diren ekimenak bai nazioartean eta baita geure ingurune gertuan ere. Bestalde, gai honen inguruan etengabe argitaratzen dira ikerketak, dokumentuak, proposamenak, esperientziak... Horrenbestez, pentsatzekoa da Gradu Amaierako Lan honetan eskaini den ikusmira laster egongo dela atzendua.

Hori horrela, azterlan honi jarraipena emateko aukera eskainiko digun baliabide bat sortzea proposatzen da atal honetan: *Hizkera Juridiko Argia* webgunea. Lehen prototipoa jada eskuragarri dago sarean, eta bertan jaso dira Gradu Amaierako Lan honetan jasotako

informazio eta dokumentu garrantzitsuenak. Jarraian eskaintzen dira proiektu honi buruzko xehetasun gehigarriak.

### **3.1 Hizkera Juridiko Argia proiektuaren helburua**

Lan honetan Ulertzeko Eskubideari eta lotura duten mugimendu ezberdinei buruzko informazio asko bildu dut eta iturri interesgarri ugari aztertzeko aukera izan dut. Webgunearen helburua, txosten honetako datu nagusienak nabarmendu eta jendartearen esku ipintzea da.

Alde batetik, lana egiteko erabili ditudan eskuliburu, artikulu eta webgune garrantzitsuenak leku edo plataforma bakarrean bildu nahi ditut. Orokorrean iturri ezberdin asko erabiltzen ditugu gai bati buruzko informazioa jasotzeko eta iturri horiek guztiak aurkitzen denbora gehiegi pasa dezakegu eta informazio urria aurkitu. Nik gai honi buruzko dokumentazio asko bildu dudanez, baliabide esanguratsuenak zerrendatu nahi ditut eta horrela, gai honetan interesatua dagoen edonoren esku egongo da klik baten bidez.

Beste aldetik, arlo honetako euskarazko baliabide bat egitea dut helburu. Aurretik azaldu dudana bezala, euskaraz lan ugari egin dira Ulertzeko Eskubideari buruz eta lan horiek guztien osagarri gisa nire ekarpena egin nahiko nuke webgune honen bidez. Izan ere, garrantzitsua iruditzen zait euskarazko iturri eguneratu bat sortzea eremu honetan eta aurretik egindako lanen erreferentziak jasotzea.

### **3.2 Zenbait aurrekari euskara juridiko-administratiboaren eremuan**

Aurreko puntuetan Ulertzeko Eskubideari buruzko euskarazko lanak aipatu ditut eta horien azterketa egiten ari nintzenean, ekimen batzuk alderdi praktiko bat landu dutela ikusi dut. Horrela sortu dira, besteak beste *Administrazio hizkera argia* bloga eta Auzia Euskaraz telefono aplikazioa.

Lehenik, [Administrazio hizkera argia bloga](#) IVAPEk sortu zuen 2016ko urrian. Blogaren helburu nagusia administrazioko komunikazioaren esparruan hizkera argia bultzatzea da, baina bide batez, egindako lanari ikusgarritasuna ematea, edukien biltegi izatea eta herritarrengana heltzen laguntzea ere helburutzat ditu blogak.



3.2.1 Irudia: *Administrazio hizkera argia* blogaren azala<sup>62</sup>

Blogean irakur dezakegun moduan, langile publikoei testu eta idazki ulergarriak eta kalitatezkoak egiten lagundu nahi da eta horretarako lan ugari egin dituzte (blogeko [Hizkera Argia](#) atalean gehiago eskuragarri), besteak beste:

- [Lege baten atalak aipatzean, letra larria ala xehea?](#)
- [4 irizpide hitz egokiak aukeratzeko.](#)
- [Zerrendak I: Irakurgarritasuna.](#)
- [Gomendio pare bat sarerako esaldi egokiak osatzeko.](#)
- [Baiezko esaldiak beti argiago.](#)

Gainera, [komunikazio elektronikoari buruzko lan ugari](#) ere bildu ditu IVAPEk blogean eta eskaintzen dituen [ikastaroei](#) eta [argitalpenei](#) buruzko informazioa ere eskuratu dezakegu.

Bigarrenik, Auzia Euskaraz telefono aplikazioa dago. Auzia Euskaraz proiektuaren barruan egin den aplikazio bat da, eta helburua justizia arloan euskara sustatzea da. [Auzia Euskaraz webgunean](#) azaltzen den moduan, abokatu, prokuradore eta notario euskaldunen komunitatea indartzen lagundu nahi dute eta gailu mugikorretan hizkera juridikoaren inguruko baliabideak izatea ahalbidetzen du doako APP honek (gailu mugikorren online dendetan deskargatu daiteke aplikazioa [Android](#) eta [iOS](#)erako).



3.2.2 Irudia: Auzia Euskaraz app-aren irudia<sup>63</sup>

Gainera, aipatu bezala Auzia Euskaraz proiektuaren barruan dagoen proiektu bat da eta horregatik, APPren helburu da ere Euskara Emaileen Komunitaterako kide berriak lortzea eta profesionalen artean euskararen erabilera indartzea.

<sup>62</sup> Iturria: [Administrazio hizkera argia bloga](#)

<sup>63</sup> Iturria: [Auzia Euskaraz telefono aplikazioa deskargatzeko Android gunea](#)

### 3.3 Webgunea diseinatzeko, antolatzeko eta elikatzeo irizpideak

Webgune hau egin aurretik ez nuen inolako esperientziarik eremu honetan, aurrekari bakarra, otsailean lan honetarako egin nuen Twitter kontua da.

[Wix](#) deituriko doako baliabidea erabili dut webgunea egiteko eta bertan azaltzen diren pausuak jarraituta sortu dut plataforma.

Ondoren, [IVAPen Komunikazio Elektronikoaren gidako](#) gomendioak jarraitu ditut webgunea egiteko. Gidan irakurritako ondorengo gomendioak azpimarratuko nituzke:




- Nabigazioa (Amatria, X. eta beste, 2013: 15-42)
  - Webgunean guneko orri nagusira edo aurkibide batera garamatzen lotura bat egon behar da.
  - Informazioa, irizpide zehatz eta argien arabera egituratu eta antolatu behar da eta edukiak etiketatzeko sistema ulertteraza izan behar da.
  - Hierarkia bisuala kontuan hartzea; hau da, webguneko informazio nagusia goialdean egotea, eta tamaina eta kolorea kontuan hartzea.
  - Erabiltzaileak guneko informazioaren ikuspegi orokorra eduki behar du orri nagusian sartzean.
  - Oso garrantzitsua da gunea osatzen duten orriak ahalik eta gehien optimizatzea.
- Diseinua (Amatria, X. eta beste, 2013: 43-84)
  - Espazioa zuriak uztea garrantzitsua da, toki huts horiek edukiei hierarkia bat ematen eta ongi bereizten eta antolatzen laguntzen baitute.
  - Marjinak webgune osoan uniformeki erabiltzea komeni da, egitura indartzen eta hobetzen baitute eta orria bisualki erakargarriago egiten baitute.
  - Testuetako letra tipoari dagokionez, serifarik gabeko letra-tipoa (letratik kanporantz irteten diren “beso” eta “oinak” ez dituen letra-tipoa) lehenestea gomendatzen da irakurketa errazteko; eta testua ez da justifikatu behar (hutsune zuriak geratzen baitira).
  - Letra-tamainari dagokionez erdibideko tamaina erabiltzea komeni da, baina irakurlearen profilaren arabera aldatu daiteke edo alda daitekeen letra tamaina ezarri.
  - Ez da komeni testuak letra larriz, lodiz edo etzanez idaztea eta azpimarratzea.

- Kulturaren arabera koloreek esanahi bat edo beste dute eta koloreek emozioak eragiten dituzte pertsonengan; horregatik, ez da komeni kolore bat ezaugarri edo funtzio baten adierazle bakarra izatea.
  - Irakurgarritasunari begira, testuaren eta hondoaren artean kontrastea bilatzea komeni da, eta horrela, kontrasterik onen letra beltza eta hondo zuria edo oso argia erabiltzea gomendatzen da.
  - Informazio guztiak ez duenez garrantzia bera, ongi bereizi behar da informazio garrantzitsua eta bigarren mailako edo osagarria den informazioa.
  - Titulu egokiak idatzi behar dira.
  - Lerro bakoitzeko 10-12 hitz baino gehiago ez jartzea komeni da.
  - Egokiagoa da zerrendak idaztea paragrafo trinkoen ordez, irakurtzeko errazagoa delako.
  - Taulak erabiltzea gomendagarria da zenbakiak konparatzeko, galderei erantzuteko eta esaldietan behin eta berriro agertzen diren egiturak eta informazioak saihesteko.
  - Ilustrazioak (argazki, irudi, grafiko, mapak etab) edo multimedia sistemak (irudia, audioa edo bideoa) egokiak izan daitezke edukia hobe azaltzeko edo hura ordezkatzeko.
  - Webgunerako sarbidea ahalik eta erabilerrazena izan behar da, herritar guztiek sartzeko oztoporik ez izateko.
  - Webgunearen eduki garrantzitsu guztiak atarian agertu behar dira eta bertako diseinua landu.
- Pantailarako testuen idazketa-prozesua (Amatria, X. eta beste, 2013: 84-138)
    - Irakurleak eskaneatu egiten du webgunea, eta hortaz, zenbat eta luzeagoa izan testua, orduan eta aukera gutxiago daude erabiltzaileek hitz guztiak irakur ditzaten.
    - Pantailan irakurtzea astuna da eta horregatik, irakurleek eskertu egiten dute testuak argiak eta zuzenak izatea.
    - Edukiak egituratzeko orduan, irakurleen tokian jarri behar dugu gure burua eta haien interes, beharizan eta mugak kontuan hartu idazterakoan; helburua irakurleak informatzea baita eta ez gure jakituriaz inor inpresionatzea.

- Idazten hasi aurretik helburua definitu eta hartzaileak identifikatu. Ondoren ideien eskema egin eta idazten hasi. Behin testua idatzita, nola pantailaratu pentsatu eta testuen titulu eta bilatzaileak kontuan izan. Azkenik, errebisatu eta zuzendu.
- Estiloa (Amatria, X. eta beste, 2013: 139-203)
  - Testua luzea izan daiteke eta era berean egokia, modu egokian antolatu bada.
  - Paragrafoen forma eta edukia zaindu behar da, ez dira luzeak izan behar eta ideia bakarra aipatu paragrafo bakarrean. Gainera, esaldi labur eta sinpleak erabili behar dira, perpaus ugaridun esaldiak saihestuz, erlatibo eta gerundioetan arreta jarritz, informazio nagusia esaldiaren hasieran idatzi, aditza aurreratu, puntuazio egokia erabili, garrantzi gabeko elementuak kendu, egitura anbiguoak baztertu, esaldi aktiboak, aditz esanguratsuak eta testu-antolatzaileak erabili eta lexiko zehatz eta egokiarekin idatzi.

IVAPen gomendio hauek guztiak kontuan hartu ditut eta nire webgunea egin dut, *Hizkera Juridiko Argia* deiturikoa. Hurrengo taula honetan azalduko dut zein diren webgunean oinarriak:

<p><b>Helbidea:</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <a href="https://ainhoaaltzuguren.wixsite.com/hizkerajuridikoargia">https://ainhoaaltzuguren.wixsite.com/hizkerajuridikoargia</a></li> </ul> <p>Izen hori jarri dut hartzaileek erraz aurkitzeko, izen argia eta zehatza baita. Helbidean nire izena ageri da, wix plataforma doakoa delako eta domeinua ez dagoelako erregistratua.</p> <div data-bbox="624 1323 1441 1597" style="border: 1px solid black; padding: 10px; text-align: center;"> <p><b>HIZKERA JURIDIKO ARGIA</b></p> <p> <a href="#">Home</a>   <a href="#">Hizkerako erabiltzaileak</a>   <a href="#">Kontakizketa Argia</a>   <a href="#">Hizkeraketa Errenta</a>   <a href="#">Laguntza Oriburua</a>   <a href="#">Legal Design</a>   <a href="#">Berebizitza</a> </p> </div>
<p><b>Izenburua:</b> Zein da webgunearen izenburua? Zein elementu erabiltzen dira identifikatzeko webgunea?</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hizkera Juridiko Argia.</li> <li>• Izenburuaren azpian menua dago.</li> <li>• Logo bat dauka orriaren erdian.</li> <li>• Logoaren azpian 4 botoi daude: Lege dokumentuak, Ulertzeko Eskubidea, Gidak eta eskuliburuak, eta Erakundeak.</li> <li>• Azpian aurkezpena dago eta Twitter konturako linka.</li> </ul>

	
<p><b>Menua:</b> Zein dira atal nagusiak?</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hasiera</li> <li>• Ulertzeko Eskubidea <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Legezko bermeak</li> <li>○ Nazioarteko elkarteak</li> <li>○ Gaztelaniaren eraberritzea Espainian</li> <li>○ Euskararen eraberritzea</li> </ul> </li> <li>• Komunikazio Argia <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Hizkera inklusiboa</li> </ul> </li> <li>• Irakurketa Erraza <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Irakurketa Erraza EAEn</li> </ul> </li> <li>• Lenguaje Ciudadano</li> <li>• Legal Design</li> <li>• Bestelakoak <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Lege dokumentuak</li> <li>○ Gidak eta eskuliburuak</li> <li>○ Erakundeak</li> </ul> </li> </ul> 
<p><b>Arkitektura:</b> Argi geratzen al da webgunearen arkitektura?</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bai, webgunearen atal bakoitza osatzen duten atalak argi identifikatu eta zerrendatzen dira.</li> <li>• Atal bakoitzean sartuz gero, azpiatalak modu argian antolatuta eta identifikatuta agertzen dira.</li> </ul>
<p><b>Komunikazioa:</b> Eskaintzen al ditu komunikaziorako baliabideak?</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Twitter kutxa agerian da Hasiera atalean; lan honetarako egin den Twitter kontuarekin lotura ezarri nahi izan baita.</li> </ul> 
<p><b>Baliabideak:</b> Eskaintzen al du erabiltzaileentzako baliagarria izan daitekeen baliabiderik?</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bai, atal bakoitzeko testuan zehar liburu, lan edo erakunde baten aipamena egiten denean, baliabide horretara jotzeko linka dago.</li> <li>• Bestelakoak atalean, bibliografia zabala dago lege dokumentu, gida, eskuliburu eta erakundeei buruz.</li> </ul>
<p><b>Helburuak-1:</b> Nolako eragiketak ahalbidetzen ditu webguneak?</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Informazio eskuratzea.</li> <li>• Elkarte / liburu eta artikulua ugarira jotzeko aukera.</li> </ul>



<p><b>Helburuak-2:</b> Zertarako erabiltzen dira gizarte-sareak?</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Twitter maiz erabiltzen da: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Azken albisteak zabaltzeko.</li> <li>○ Hizkuntza eta komunikazio aholkuak zabaltzeko.</li> <li>○ Argitalpenen berri emateko.</li> <li>○ Beste erakunde batzuen informazioa zabaltzeko.</li> </ul> </li> </ul>
--	---

#### 4. Konklusio orokorrak

Izenburuak dioen moduan, Hizkera juridiko argiaren bidetik, Ulertzeko Eskubideari lotutako ekimenak identifikatzea eta aztertzea izan da lan honen helburua. Horretarako, lehenengo atalean Ulertzeko Eskubidearen definizioa eta legezko bermea aztertu dira. Bigarren atalean, herrialde ezberdinetan eremu honetan egin dituzten lanak aztertu dira. Hurrengo ataletan 5 mugimenduen nondik norakoak landu dira eta azkenik, Espainian gaztelania eta euskara juridiko-administratiboa eraberritzeko ekimenak zein izan diren aztertu dira.

Honen bitartez, argi geratu da nazioartean Ulertzeko Eskubideak duen indarra eta hizkera juridiko argia erabiltzeak duen garrantzia.

Laburbilduz, ondorengo ideiak azpimarratuko nituzke:

- Ulertzeko Eskubideari buruz ari garenean, ez gara modu automatikoan aplikatu daitekeen eskubide batez ari. Espainiaren kasuan, eskubide honen bermea ez da erabatekoa baina Konstituzioko zenbait aldarrikapenei eta Herritarrek Justiziaren aurrean dituzten eskubideen gutunari erreparatuz gero, legezko betebeharrak bat dagoela ondorioztatzen da.
- Ulertzeko Eskubidea modu eraginkorrean bermatzeko, beharrezkoa da egungo hizkera juridikoa ikertzea. Diziplina arteko ikerketa izan behar da; hau da, eremu ezberdinetako profesionalek jardun behar dute batera, legelariak, hizkuntzalariak, medikuak, kazetariak... Izan ere, gizarte osoari aplikatzen zaion eskubide bat izanik, ezin da planteamendu orokor bat eta bakarra egin guztiontzat, eta eragile guztien parte hartzea behar da herritar oroaren beharrak asetuko badira.
- Ildo horretatik, zenbait erronka nabarmentzen dira:
  - **Orain arte eremu honetan egindako lanak kontuan hartzea:** Lan ugari egin dira arlo honetan, eta ez du zentzurik aurrera egiteak alde aurretik egindako lanak eta lan horietatik atera diren ondorioak sistematizatu eta

bateratu gabe. Bertako gomendioak erabilgarriak dira hizkera juridiko argia lortzeko.

- **Hizkera juridikoa ikertzen jarraitzea:** Eragileen ahozko zein idatzizko komunikazioetan erabilitako hizkeraren ezaugarriak identifikatu behar dira, era argian dagoena eta zuzendu behar dena zer den jakiteko.
- **Hizkera juridikoa egokitzea:** Gizartea garatzen doan heinean hizkera ere aldatzen doa, eta hizkera juridikoa unean-uneko hizkerara egokitzea funtsezkoa da, gizarteak era argian ulertzeko.
- **Ulertzeko Eskubidearen aldeko nazioarteko mugimenduek eta Espainian lan egiten duten mugimenduak zein diren identifikatzea:** Mugimendu hauek oinarri eta planteamendu bat dute, eta hizkera juridikoa argia izateko baldintza eta ezaugarri gehigarriak proposatzen dituzte. Euren eskaerak zein diren kontuan hartu behar dira, herritar guztioi aplikatzen den eskubide batez ari baikara.

Nik neuk lan hau eginda atera ditudan ondorioei dagokienez, lehenik eta behin aitortu behar dut hasi aurretik ez nuela inoiz entzun Ulertzeko Eskubidearen berri. Ez nintzen kontziente eskubide honetaz baina gai garrantzitsua dela ikusi dut. Ez nekien batzar berezi bat sortu zutenik Espainian hemengo hizkera juridikoa aztertu, baloratu eta hobekuntzak proposatzeko. Oso lan sakon eta interesgarriak egin zituen batzarrak eta azpimarratzekoa iruditu zait bere jarduna.

Gainera, nazioartean pil-pilean dagoen gaia da. Hain zuzen ere, Hizkera Juridiko Argia Twitter kontuaren bidez konturatu naiz herrialde askotan ekitaldiak egiten eta lanak aurkezten ari direla. Estatu batzuetan aspaldi hasi ziren gaia aztertzen baina beste zenbait estatutan hasi berriak dira eta oso interesgarria iruditu zait 4 hilabete hauetan Twitterreko informazioa irakurtzea euren lana pausuz pausu nola doan ikusteko.

Herritar orori aplikatzen zaion eskubide bat izanik, herritar guztien beharrak eta eskaerak kontuan hartzea garrantzitsua da eta horregatik, oso lan serioa eskatzen duen eskubidea da, are gehiago teknologien garapena ematen ari denetik.

Zintzoki espero dut lan honen bidez eta lan honen emaitza gisa sortu dudana webgunearen bitartez, aletxo bat jarri izana nolabaiteko aurrerapausorik egiteko guztiok lotzen gaituen eta guztiok kezkatu behar gaituen gai honen inguruan.

Esan gabe doa jakinaren gainean nagoela mugatu egin behar izan dudala ezinbestean lanaren azter-eremua eta ugari direla aipatu eta jaso gabe geratu diren ekimenak, gertuko udaletan zein nazioartean hainbeste herrialdetan garatzen ari direnak.

Alabaina, gai honek har txiki bat esnatu du neure baitan, eta indarrak lagun, asmo betea dut jarraitzeko, webgunearen bitartez, zabaltzen eta osatzen txosten honetan jasotakoa. Bestela ere, etorriko dira atzetik beste ikasle eta aditu batzuk, eta, seguruenez, haiek jakingo dute gaiari beste ikuspegi batetik heltzen, eta neuri oharkabea joango zizkizkidan hainbeste eta hainbeste zehetasun jasotzen. Horrela, bada, hauxe neure ekarpena; ibilbide pizgarri honetan ikasitakoaren emaitza, alegia.



## 5. Erreferentziak

- Amatria, Xabier eta beste (2013). *Komunikazio Elektronikoaren gida*, Gasteiz: HAEE.
- Sarean eskuragarri: [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze\\_argit/eu\\_def/adjuntos/komunikazio\\_elektronikoa.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/komunikazio_elektronikoa.pdf) [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Arakama, Jose Mari eta beste (2005). *IVAPeko Estilo Liburua*. Gasteiz: HAEE.
- Sarean eskuragarri: [http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze\\_argit/eu\\_def/adjuntos/estilo\\_liburua.pdf](http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/estilo_liburua.pdf) [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Arrieta Aintzane eta beste (2003). *Galdezka*, Gasteiz: HAEE.
- Sarean eskuragarri: [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze\\_argit/eu\\_def/adjuntos/Galdezka1.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/Galdezka1.pdf) [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Borrego Nieto, Julio (Zuz.) (2010). *Estudio de campo: Plantillas procesales*, Madril: Justizia Ministerioa.
- Sarean eskuragarri: <http://lenguajeadministrativo.com/wp-content/uploads/2015/10/CMLJ-Documentos-para-el-informe.pdf> [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Briz Gómez, Antonio (Zuz.) (2010). *Estudio de campo: Lenguaje oral*, Madril: Justizia Ministerioa.
- Sarean eskuragarri: <http://lenguajeadministrativo.com/wp-content/uploads/2015/10/CMLJ-Lenguaje-oral.pdf> [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Carretero González, Cristina (Zuz.) (2010). *Estudio de campo: Políticas Públicas comparadas*, Madril: Justizia Ministerioa.
- Sarean eskuragarri: <http://lenguajeadministrativo.com/wp-content/uploads/2015/10/CMLJ-Estudio-de-campo.pdf> [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Carretero, González Cristina eta beste (2017). *Comprender y hacernos entender*, Madril: Instituto de Lectura Fácil.
- Sarean eskuragarri: <https://repositorio.comillas.edu/xmlui/bitstream/handle/11531/17353/GUIA%20DEF%20LENGUAJE%20CLARO.PDF?sequence=1> [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Comisión para la Modernización del Lenguaje Jurídico (2010). *Informe de la Comisión de modernización del lenguaje jurídico*, Madril: Justizia Ministerioa.
- Sarean eskuragarri: <http://lenguajeadministrativo.com/wp-content/uploads/2013/05/cmlj-recomendaciones.pdf> [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Erkoreka Josu, Lozano Joseba eta beste (1994). *Hizkera argiaren bidetik*, Gasteiz: HAEE.
- Garcés Trelles, Kenneth eta Montes Bravo Mariana (2014). *Manual judicial del lenguaje claro y accesible a los ciudadanos*, Perú: Fondo editorial del Poder Judicial.
- Sarean eskuragarri: <https://www.pj.gob.pe/wps/wcm/connect/7b17ec0047a0dbf6ba8abfd87f5ca43e/MANUAL+JUDICIAL+D+E+LENGUAJE+CLARO+Y+ACCESIBLE.pdf?MOD=AJPERES> [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Gutiérrez Ordoñez, Salvador (Zuz.) (2010). *Estudio de campo: Lenguaje de las normas*, Madril: Justizia Ministerioa.
- Sarean eskuragarri: <http://lenguajeadministrativo.com/wp-content/uploads/2015/10/CMLJ-Lenguaje-de-las-normas.pdf> [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- HAEEko Administrazio Hizkeraren Atala (2000). *Zalantza-dantza*, Gasteiz: HAEE.
- Sarean eskuragarri: [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze\\_argit/eu\\_def/adjuntos/Zalantza-dantza2.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/Zalantza-dantza2.pdf) [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- IVAPeko Administrazio Hizkera Atala (2017). *20 consejos para mejorar la calidad de los textos jurídicos*, Gasteiz: HAEE.
- Sarean eskuragarri: [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze\\_argit/eu\\_def/adjuntos/Mejorar\\_textos\\_juridicos/index.html](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/Mejorar_textos_juridicos/index.html) [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Lozano Joseba eta beste (1997). *Argiro idazteko proposamenak eta ariketak*, Gasteiz: HAEE.

- Montolío Durán, Estrella (Zuz.) (2010). *Estudio de campo: Lenguaje escrito*, Madril: Justizia Ministerioa.
- Sarean eskuragarri: <http://lenguajeadministrativo.com/wp-content/uploads/2015/10/CMLJ-Lenguaje-escrito.pdf> [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Montolío, Estrella (2012). *Hacia la modernización del discurso jurídico*, Barcelona: Publicacions i Edicions de la Universitat de Barcelona.
- Sarean eskuragarri: <https://books.google.es/books?id=w0xDBgAAQBAJ&pg=PA213&lpq=PA213&dq=carta+derechos+ciudadanos+der%20echo+a+comprender&source=bl&ots=6dEdeDyarG&sig=HgsaaZvJhPNwWIE2mFPSwoInKtQ&hl=eu&sa=X&ved=%200ahUKEwjuwJ-%20svsPaAhVMuBQKHeE1AGk4ChDoAQhAMAc#v=onepage&q=carta%20derechos%20ciudadanos%20derecho%20a%20%20comprender&f=false> [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Montolío Durán, Estrella, eta Tascón Ruiz, Mario (2017-a). *Comunicación Clara, Guía Práctica*, Madril: Prodigioso Volcán.
- Sarean eskuragarri: <http://www.madrid.es/UnidadesDescentralizadas/Calidad/LenguajeClaro/ComunicacionClara/Documents/GuiaPracticaCCLara.pdf> [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Montolío, Estrella eta Tascón, Mario (2017-b). *Comunicación Clara: Una herramienta moderna y eficaz para que la administración y las empresas dialoguen con los ciudadanos de una forma clara y transparente*, Madril: Prodigioso Volcán.
- Sarean eskuragarri: <http://www.prodigiosovolcan.com/py/comunicacion/assets/ComunicacionClara.pdf> [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Mora Garzón, Jorge Andrés eta beste (2015). *Guía de Lenguaje Claro para Servidores Públicos de Colombia*, Kolonbia: Imprenta Nacional de Colombia.
- Sarean eskuragarri: [http://www.portaltributariodecolombia.com/wp-content/uploads/2015/07/portaltributariodecolombia\\_guia-de-lenguaje-claro-para-servidores-publicos.pdf](http://www.portaltributariodecolombia.com/wp-content/uploads/2015/07/portaltributariodecolombia_guia-de-lenguaje-claro-para-servidores-publicos.pdf) [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Muñoz Machado, Santiago (2017). *Libro de estilo de la Justicia*, Barcelona: Espasa libros.
- Peral Parrado, María (2010), *Estudio de campo: Lenguaje jurídico en los medios*, Madril: Justizia Ministerioa.
- Sarean eskuragarri: <http://lenguajeadministrativo.com/wp-content/uploads/2015/10/CMLJ-Lenguaje-en-los-medios.pdf> [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Ureta Guerrasa, Juan Antonio (2012). *Técnicas de Argumentación Jurídica*, Lima: Ed. Ediciones Legales.
- Valdovinos Chávez, Carlos M., eta beste (2007). *Manual de Lenguaje Claro*, Mexiko: Secretaría de la Función Pública.
- Sarean eskuragarri: [http://www.normateca.sedesol.gob.mx/work/models/NORMATECA/Normateca/3\\_Carrousel/9\\_Manual\\_lenguaje/Manual\\_Lenguaje\\_040511.pdf](http://www.normateca.sedesol.gob.mx/work/models/NORMATECA/Normateca/3_Carrousel/9_Manual_lenguaje/Manual_Lenguaje_040511.pdf) [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Valdovinos Chávez, Carlos Miguel eta beste (2004). *Lenguaje Ciudadano: Un manual para quien escribe en la Administración Pública Federal*, Mexiko: Secretaría de la Función Pública.
- Sarean eskuragarri: <http://lecturafacyl.es/wp-content/uploads/2013/03/Lenguaje-Ciudadano.pdf> [Azken kontsulta: 2018/05/10].

#### **Lege dokumentuak:**

- AGE (Zibileko Sala) 1916/2013, 2013ko maiatzaren 9koa.
- AGE (Zibileko Sala) 53/2018, 2018ko otsailaren 1ekoa.
- Espainiako Konstituzioa (1978).
  - URL: <https://www.boe.es/legislacion/documentos/ConstitucionEUSKERA.pdf>
- Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (1976).
  - URL <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/CCPR.aspx>

- Giza Eskubideen Europako Hitzarmena (1950).
  - URL: [https://www.echr.coe.int/Documents/Convention\\_SPA.pdf](https://www.echr.coe.int/Documents/Convention_SPA.pdf)
- Herritarrek Justiziaren aurrean dituzten eskubideen gutuna (2002).
  - URL: [https://www.justizia.eus/servlet/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadername1=Content-Disposition&blobheadervalue1=filename%3Ddocumentos-303-carta-derechos-EUSK\\_0.pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1290510252341&ssbinary=true&miVar=1524342879236](https://www.justizia.eus/servlet/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadername1=Content-Disposition&blobheadervalue1=filename%3Ddocumentos-303-carta-derechos-EUSK_0.pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1290510252341&ssbinary=true&miVar=1524342879236)
- Libro Blanco de la Justicia (1998).
  - URL: <http://www.castillalamancha.es/sites/default/files/documentos/pdf/20161220/2. libro blanco de la justicia documento no 2.pdf>
- Justiziaren Gardentasun Plana (2005).
  - URL: [https://www.boe.es/diario\\_boe/txt.php?id=BOE-A-2005-17951](https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2005-17951)
- Justizia Modernizatzeko Plan Estrategikoa (2009-2012).
  - URL: [https://www.mjusticia.es/estatico/cs/mjusticia/pdf/PEModernizacion2009\\_2012.pdf](https://www.mjusticia.es/estatico/cs/mjusticia/pdf/PEModernizacion2009_2012.pdf)
- Lege-idazkuntzari buruzko 13020 Ebazpena (2005).
  - URL: <http://www.boe.es/boe/dias/2005/07/29/pdfs/A26878-26890.pdf>
- Akzioen Plana (2012-2015).
  - URL: [http://www.mjusticia.gob.es/cs/Satellite/Portal/1292427277121?blobheader=application%2Fpdf&blobheadername1=Content-Disposition&blobheadervalue1=attachment%3B+filename%3DPlan\\_de\\_Accion\\_de\\_la\\_SGAJ](http://www.mjusticia.gob.es/cs/Satellite/Portal/1292427277121?blobheader=application%2Fpdf&blobheadername1=Content-Disposition&blobheadervalue1=attachment%3B+filename%3DPlan_de_Accion_de_la_SGAJ)
- RAE, Justizia Ministerioa, Estatuko Fiskaltza Orokorra, RAJL, Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Orokorra, Espainiako Prokuradoreen Kontseilu Orokorra eta Espainiako Zuzenbideko Fakultateen Dekanoen Konferentziaren arteko lankidetzarako 2011ko abenduaren 21eko hitzarmen-markoa.
  - URL: <http://lenguajeadministrativo.com/wp-content/uploads/2013/05/cmlj-convenio-para-promover-la-claridad.pdf>

#### Webguneak:

- *Administrazio hizkera argia* bloga.
  - URL: <http://www.ivap.euskadi.eus/administrazio-hizkera-argia/> [Azken kontsulta: 2018/05/10]
- *Administrazioa Euskaraz* aldizkaria.
  - URL: <https://www.euskadi.eus/r61-appadmeu/eu/t59auUdaWar/R1?locale=eu> [Azken kontsulta: 2018/05/10]
- *Auzia Euskaraz*.
  - URL: <http://www.auziaeuskaraz.eus/p/app.html> [Azken kontsulta: 2018/05/10]
- Badía, Javier (2015). Sobre la modernización del lenguaje jurídico, *Lenguaje administrativo*.
  - URL: <http://lenguajeadministrativo.com/sobre-la-modernizacion-del-lenguaje-juridico/> [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Beleen, Lieke (2017), What is Legal Design?, *Visual Contracts*.
  - URL: <https://www.visualcontracts.eu/> [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Born Agustín (2018), “Legal Design”: así se transforman los despachos de abogados”, *Diario Expansión*, 33.
  - URL: [http://www.elderecho.com/actualidad/Legal-design-Expansion\\_EDEFIL20180209\\_0002.pdf](http://www.elderecho.com/actualidad/Legal-design-Expansion_EDEFIL20180209_0002.pdf) [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- *Centro Latinoamericano de Administración para el Desarrollo (CLAD)*.
  - URL: <https://www.clad.org/> [Azken kontsulta: 2018/05/10]
  -
- *Clarity*.
  - URL: <http://www.clarity-international.net/> [Azken kontsulta: 2018/05/10]

- *Clear Europe.*
  - URL: <https://clearurope.eu/> [Azken kontsulta: 2018/05/10]
- *Commonwealth Association of Legislative Council (CALC).*
  - URL: <http://www.calc.ngo/> [Azken kontsulta: 2018/05/10]
- Defensor Del Pueblo Andaluz (2017), Comprender la información que nos rodea es un derecho de toda persona, *Defensor del Pueblo Andaluz.*
  - URL: <http://www.defensordelpuebloandaluz.es/actualidad/comprender-la-informacion-que-nos-rodea-es-un-derecho-de-toda-persona> [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- *Dilofacil.*
  - URL: <http://www.dilofacil.es/> [Azken kontsulta: 2018/05/10]
- EEBBko PLAIN.
  - URL: <https://plainlanguage.gov/> [Azken kontsulta: 2018/05/10]
- EUR-lex.
  - URL: <http://eur-lex.europa.eu/homepage.html?locale=es> [Azken kontsulta: 2018/05/10]
- *European Legal English Teachers Association (EULETA).*
  - URL: <https://euleta36.wildapricot.org/> [Azken kontsulta: 2018/05/10]
- Elosegi Antton (1998), Hizkera hiperrargiaz, *Administrazioa euskaraz aldizkaria*, 22.zenbakia, 5.
- Eusko Jaurlaritza (2017), Actuaciones llevadas a cabo por el Gobierno Vasco derivadas de la aplicación de la Carta de Derechos de los Ciudadanos ante la Justicia, *Justizianet.*
  - URL: [https://www.justizia.eus/servlet/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadername1=Content-Disposition&blobheadervalue1=filename%3Dactuaciones-gobierno-vasco-CAS-v1.0\\_1.pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1290510308411&ssbinary=true&miVar=1526230129957](https://www.justizia.eus/servlet/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadername1=Content-Disposition&blobheadervalue1=filename%3Dactuaciones-gobierno-vasco-CAS-v1.0_1.pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1290510308411&ssbinary=true&miVar=1526230129957)
- Ferrer, Carlos (1996), Hizkera erraza eta argia erabiltzeari buruzko erabakia (95/C 256/03). *Administrazioa Euskaraz Aldizkaria*, 12. zenbakia, 12-24. (Itzultzailea: Joseba Urkia).
- Frantziako COSLA.
  - URL: <https://www.fonction-publique.gouv.fr/archives/home20020121/lactualite/cosla/reunion27112001.htm> [Azken kontsulta: 2018/05/10]
- Fugali Milione, Ciro (2015), El derecho a la motivación de las resoluciones judiciales en la jurisprudencia del Tribunal Constitucional y el derecho a la claridad: reflexiones en torno a una deseada modernización del lenguaje jurídico, *Estudios de Deusto: revista de la Universidad de Deusto*, 173-188.
  - URL: <http://revista-estudios.revistas.deusto.es/article/view/923/1059> [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Gorostiza Aitor (2009), Administraziozko Idazkiak Estandarizatzeko Teknikak, *Euskadi.eus.*
  - URL: [http://www.euskara.euskadi.eus/r59-euhadm2/es/contenidos/informacion/erabilera\\_planak\\_jardunaldiak/eu\\_jardun/adjuntos/Aitor%20Gorostiza%20-%20Estandarizazioa.pdf](http://www.euskara.euskadi.eus/r59-euhadm2/es/contenidos/informacion/erabilera_planak_jardunaldiak/eu_jardun/adjuntos/Aitor%20Gorostiza%20-%20Estandarizazioa.pdf) [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- *Instituto de Innovación Legal.*
  - URL: <https://institodeinnovacionlegal.com/> [Azken kontsulta: 2018/05/10]
- *International Language and Law Association (ILLA).*
  - URL: <http://www.illa.org/> [Azken kontsulta: 2018/05/10]
- Irakurketa Errazaren Institutua.
  - URL: <https://www.institutolecturafacil.org/> [Azken kontsulta: 2018/05/10]
- *Justo Vos.*
  - URL: <https://www.argentina.gob.ar/justovos> [Azken kontsulta: 2018/05/10]



- Lectura Fácil Euskadi – Irakurketa Erraza.
  - URL: <http://lecturafacileuskadi.net/> [Azken kontsulta: 2018/05/10]
- *Legal Design Lab*.
  - URL: <http://www.legaltechdesign.com/> [Azken kontsulta: 2018/05/10]
- Maestre Marín, Jorge (2015), El derecho a comprender el lenguaje jurídico, *El traductor invisible*.
  - URL: <http://www.eltraductorinvisible.es/2015/03/El-derecho-a-comprender-el-lenguaje-juridico> [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- *Plain English Campaign*.
  - URL: <http://www.plainenglish.co.uk/> [Azken kontsulta: 2018/05/10]
- *Plain Language Association International*.
  - URL: <http://plainlanguagenetwork.org/> [Azken kontsulta: 2018/05/10]
- Prieto De Pedro, Jesús (1996), Hizkera argiak estatu demokratikoetan duen tokia, *Administrazioa Euskaraz Aldizkaria*, 12.zenbakia, 18. (Itzultzailea: Joseba Urkia).
- Public Works and Government Services Canada. *Translation Bureau*.
  - URL: <http://www.btb.termiumpius.gc.ca/tcdnstyl-chap?lang=eng&lettr=chapsect13&info0=13> [Azken kontsulta 2018/04/09]
- RAE:
  - URL: <http://www.rae.es/> [Azken kontsulta: 2018/05/10]
- Real Academia Española y Consejo General Del Poder Judicial (2017), Diccionario panhispánico del español jurídico, *RAE*.
  - URL: [http://www.rae.es/sites/default/files/Dossier\\_Diccionario\\_panhispanico\\_del\\_espanol\\_juridico.pdf](http://www.rae.es/sites/default/files/Dossier_Diccionario_panhispanico_del_espanol_juridico.pdf) [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Real Academia Española y Consejo General Del Poder Judicial (2016), Diccionario del español jurídico, *RAE*.
  - URL: <http://www.rae.es/obras-academicas/diccionarios/diccionario-del-espanol-juridico> [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Real Academia Española y Consejo General Del Poder Judicial (2017), Libro de estilo de la Justicia, *RAE*.
  - URL: <http://www.rae.es/obras-academicas/obras-linguisticas/libro-de-estilo-de-la-justicia> [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Reinaldo Durán Gutiérrez, Orley (2012), Los Colectivos de Comunicación Ciudadana: una apuesta local de Participación comunitaria para el cambio social. Estudio de casos múltiples. *Perspectivas N°5/2013*.
  - URL: [http://www.fesmedia-latin-america.org/uploads/media/Perspectivas\\_5\\_-\\_Colectivos\\_de\\_comunicaci%C3%B3n\\_ciudadana\\_Orley\\_Dur%C3%A1n.pdf](http://www.fesmedia-latin-america.org/uploads/media/Perspectivas_5_-_Colectivos_de_comunicaci%C3%B3n_ciudadana_Orley_Dur%C3%A1n.pdf) [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Salazar Telles, Arletis (2016) Lenguaje Ciudadano, accesibilidad y usabilidad de la información, *infotecarios*.
  - URL: <http://www.infotecarios.com/lenguaje-ciudadano-accesibilidad-y-usabilidad-de-la-informacion/> [Azken kontsulta: 2018/05/10].
- Sueziako PLAIN:
  - URL: [http://elibrary.lt/resursai/Uzsienio%20leidiniai/Countries/Sweden/Justice/2001/mj2001\\_03.pdf](http://elibrary.lt/resursai/Uzsienio%20leidiniai/Countries/Sweden/Justice/2001/mj2001_03.pdf) [Azken kontsulta: 2018/05/10]
- *The American Society of Writers on Legal Subjects (SCRIBES)*.
  - URL: <https://www.scribes.org/> [Azken kontsulta: 2018/05/10]

#### Youtube:

- *Design Thinking*:
  - URL: <https://www.youtube.com/watch?v=pXtN4y3O35M> [Azken kontsulta: 2018/05/10].

HIZKERA JURIDIKO  
**ARGIA**

<https://ainhoaaltzuguren.wixsite.com/hizkerajuridikoargia>